# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

# ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia Iruña, 2015eko otsailaren 23a 28. ZK.

**A U R K I B I D E A**

G SAILA:
**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**
—Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

**G saila:**
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

# Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko abenduaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako Nafarroako Enplegu Zerbitzua buruzko fiskalizazio txostena, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2014ko abenduaren 22an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higueras

## Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

### AURKIBIDEA

**I.** Sarrera (3. or.).

**II.** Nafarroako Enplegu Zerbitzua (3. or.).

**III.** Lanaren helburua eta norainokoa (5. or.).

**IV.** Ondorio orokorrak eta gomendioak (6. or.).

IV.1. Aurreko txosteneko gomendioak. (6. or.).

IV.2. Barne-kontrola (6. or.).

IV.3. Enpresari- eta sindikatu-erakundeek jasotako funtsak. (7. or.).

IV.4. Gomendioak (7. or.).

**V.** Aztertutako alderdiei buruzko iruzkinak (8. or.).

V.1. Gomendioen ezarpena (8. or.).

V.2. NEZen kontrola (14. or.).

V.3. Enpresari- eta sindikatu-erakundeek jasotako funtsak (19. or.).

Eranskina. NEZek antzemandako gorabeherak (29. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (30. or.).

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak aurkezturiko alegazioei Kontuen Ganbarak emandako erantzuna (31. or.).

## I. SARRERA

2012ko azaroan, Nafarroako Kontuen Ganberak txosten bat egin zuen Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruz, non parlamentu-eskari bati erantzunez, atal bat jaso baitzen, honako izenburuaren pean: "UGTk, CCOOk eta CENek 2008tik Nafarroako aurrekontuetatik jasotako funtsak".

2013ko urrian, Nafarroako Kontuen Ganberan bi parlamentu-eskari jaso ziren Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak eginak, zeinetan txosten bat eskatzen baitzen Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko 2012ko azaroko txostenean planteatutako gomendioen jarraipenari buruz eta beste txosten bat, berriz, "Nafarroako Gobernuak gure erkidegoko enpresari- eta sindikatu-erakundeei kontusail guztietan egindako ekarpen ekonomikoen azterketari eta balorazioari buruz".

Kontuen Ganberak txosten horiek 2014ko fiskalizazio programan sartu zituen.

Azterketa-lana auditoriako teknikari batek eta bi auditorek osatutako taldeak egin zuen, Nafarroako Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Txostenak bost atal dauzka. Sarrera honen ondotik, bigarren atalean, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari buruzko laburpen bat egin dugu; hirugarren atalean, berriz, lanaren helburua eta norainokoa azaltzen dira. Laugarren atalean, ondorio orokorrak eta gomendioak ematen ditugu. Azkenean, bosgarren atalean, ondorio orokor horiek zabalago ematen ditugu, eta iruzkin xeheagoak egiten ditugu aztertutako alderdiei buruz. Gainera, eranskin bat ere badago, non Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bere azterketetan antzemandako gorabeherak eta haiek konpontzeko proposamenak jasotzen baitira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Enplegu Zerbitzuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA

Nafarroako Enplegu Zerbitzua erakunde autonomo bat da, apirilaren 29ko 148/1998 Foru Dekretuaren bidez sortua Estatuak autonomia erkidegoei eskualdatutako enplegu- eta prestakuntza-politika aktiboak kudeatzeko. Eskumenak eskualdatu ondoren, Estatuak politika “pasiboak” kudeatzen ditu (langabeziagatiko prestazioak) eta autonomia erkidegoek enplegu-politika “aktiboak” kudeatzen dituzte enplegu-zerbitzu publiko autonomikoen bidez. Horiek guztiek osatzen dute enplegu-zerbitzu publikoen eta Enplegu Sistema Nazionalaren multzoa, eta eskumen desberdinak izan arren, elkarrekin koordinaturik lan egiten dute herritarrei zerbitzua emateko orduan.

Estatutuetan, zenbait aldaketa izan ditu, horietako azkenak martxoaren 14ko 15/2012 Foru Dekretuaren bidez, martxoaren 20ko 19/2013 Foru Dekretuaren bidez eta otsailaren 12ko 18/2014 Foru Dekretuaren bidez eginak.

Gobernu Kontseiluak, Batzorde Iraunkorrak eta zuzendari kudeatzaileak osatzen dituzte zuzendaritza-organoak.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko Gobernu Kontseiluan hiru alderdiren ordezkariak biltzen dira. Honakoak dira:

a) Administrazioaren ordezkari:

- Kontseiluburua: Lanaren arloko eskumena duen departamentuko kontseilaria.
- Kontseiluburuordea: lanaren arloko eskumena duen zuzendari nagusia, kontseilariaren ordezkoa izanen dena azken hori ez badago.
- Kontseilukidea: industria gaietan eskumena duen zuzendari nagusia.
- Kontseilukidea: ekonomia gaietan eskumena duen zuzendari nagusia.
- Idazkaria: Laguntza Tekniko eta Administratiboaren Zerbitzuko zuzendaria.

b) Sindikatu-erakundeak ordezkatuz, lau kide, Nafarroako Foru Komunitatean ordezkagarritasun handiena duten sindikatuek izendatuak, Sindikatu Askatasunari buruzko abuztuaren 2ko 11/1985 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera.

c) Enpresa-erakundeak ordezkatuz, lau kide, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioak izendatuak.

Gobernu Kontseiluaren bileretan zuzendari kudeatzailea ere izanen da, hizpidearekin baina botorik gabe.

Zerbitzuaren jarduna honako jarduera-ildoetan laburbildu dezakegu:

• Langile eta enplegu-emaileentzako arreta. Langileei enplegu agentzietan ematen zaien laguntza da, batez ere enplegu-eskatzaileei eta enplegu-emaileei, enpresei, hainbat erakunderi, sektore publikoari… ematen zaiena. Administrazio prozesuak kudeatzen dira, langabeen erregistroaren mantentzeari, kontratuei, lan-eskaintzei eta abarrekoei dagokienez.

• Eskaintzaren eta eskariaren arteko bitartekaritza. 2011ko urrian, "Enpresen Agentzia" sortu zen, kontratuen, laguntzen nahiz diru-laguntzen, enplegu-eskaintzen kudeaketaren, hautapen-prozesuen, kontratazioaren eta abarren arloko aholkularitza-zerbitzu integral bat eskaintzeko.

• Enpleguaren sustapena. Baztertuta dauden edo baztertuta egoteko arriskua duten taldeen eta desgaitasunak dituzten pertsonen laneratzea bultzatzearekin eta gizarte-ekonomia sustatzearekin eta ekintzailetza bultzatzearekin lotutako zereginak ditu.

• Prestakuntza. Landun nahiz langabeentzako prestakuntza-jarduera osoa barne hartzen du, eta helburu du egungo nahiz etorkizuneko lanpostuetarako trebakuntza handiagoa izan dezaten.

• Lanerako orientazioa. Langileei arreta pertsonalizatua ematen zaie, batez ere lana eskatzen dutenei, laneratzeko ibilbide pertsonalak ezarriz.

• Enplegu-politika aktiboen artean honakoak nabarmentzen dira beren garrantzia kuantitatiboagatik:

• Enplegu-zentro berezientzako (Tasubinsa, Aspace eta abar) diru-laguntzak. Zailtasunak dituzten taldeak kontratatzen dituzten irabazi-asmorik gabeko zentroen kostuen zati bat diruz laguntzen dute, eta, beraz, enpleguan zuzenean eragiten dute.

• Langabeen eta landunen prestakuntzarako diru-laguntzak.

Gaur egun, bilatzen da ikastaroek “profesionaltasun-ziurtagiriak" eskuratzeko erraztasunak ematea; hau da, langileei lanbide-heziketako edo prestakuntzako titulazioak lortzeko aukera ematen dien prestakuntza-sistema izatea.

Ministro Kontseiluak, 2013ko abuztuan, Enplegu Politiken Urteko Plana (EPUP) onetsi zuen, non enplegu-politika aktiboen programazio-, kudeaketa- ebaluazio- eta finantzaketa-eredu berri bat ezartzen baita, helburuak lortzera bideratua.

2014rako, urriaren 10eko ESS/1897/2013 agindua onestearen ondorioz, prestakuntza-ekintzen modulu ekonomikoak aldatzen dira, eta ikasle eta ordu bakoitzeko 8 euroko prezioan geratzen dira profesionaltasun-ziurtagirientzat; lehenago 9 eta 13 eurokoak zirenak –oinarrizko ikastaroak nahiz goi mailakoak–, berriz, 8 eta 11 eurotan geratzen dira, hurrenez hurren.

Bi araudi horiek, gure lanaren aurretikoak direnek, modu adierazgarrian aldatzen dute aurreko funtzionamendua, enplegu politiken helburuei dagokienez eta finantzaketa autonomia-erkidegoen artekan banatzeari dagokionez, bai eta prestakuntza-ekintzen finantzaketa-moduluei dagokienez ere.

## III. LANAREN HELBURUA ETA NORAINOKOA

Lan honen helburua da parlamentu-eskariei erantzuna ematea; honakoei, hain zuzen ere:

- Aurreko txosteneko gomendioen ezarpen-maila egiaztatzea.
- NEZek transferentziak emateko ezarritako barne kontrola aztertzea.
- Enpresari- eta sindikatu-erakundeek 2011-2013 aldian jasotako zenbatekoak ezagutzea.
- Aldi horretan jasotako zenbatekoak alderatzea aurreko txostenean aztertutakoekin; 2008-2010 aldiari buruzkoak dira horiek.
- Ekarpenen balorazioa egitea.
- Sindikatuek ordezkagarritasunaren eta funtzionamendu-gastuen finantzaketaren kontzeptuan jasotako zenbatekoak aurkeztea.

Aurreko txostenaren gomendioei dagokienez, adierazi beharra daukagu aintzat hartu ditugula bai berariaz gomendio gisa agertzen direnak, bai inplizitu zeudenak, nagusiki ondorio eta gomendio orokorren atalean.

Horiek guztiak 13 gomendiotan bildu ditugu. Banaka aztertuko ditugu gomendio horiek txosten honetako V. atalean.

Lana egiteko, elkarrizketak izan ditugu NEZeko arduradunekin, eta gomendioen ezarpena aztertu dugu. Barne-kontrola konprobatzeko, sistema orokorra aztertu dugu eta laginen bitartezko egiaztapen batzuk egin ditugu. Adierazi beharra daukagu ezen, aurreko txostena 2012ko azaroan argitaratu zenez eta 2011-2013 aldia hartzen duenez, ez dela behar adina denbora izan gomendioetako batzuk guztiz ezartzeko.

Enpresari- eta sindikatu-erakundeek jasotako zenbatekoak Nafarroako kontabilitate-erregistroen bidez ezagutu dira. Halaber, honakoen datuak ere jaso ditugu: ANAFE (Nafarroako Prestakuntzarako eta Enplegurako Elkartea, 1991n sortua eta CCOOri lotua) eta INAFRE ( Nafarroako Prestakuntzarako, Birziklatzerako eta Enplegurako Institutua, 1996an CENek, UGTk eta CCOOk sortua).

NEZek ezarritako barne-kontrolaren berrikuspenean, besteak beste, NEZen beste adierazle batzuk ezartzea aztertzen da; izan ere, ministerioaren funtsak autonomia erkidegoen artean banatzeko balio duenez, aukera ematen du jarduera baloratzeko.

Aurreko txostenean bezala, funtsak kontabilitatearen ikuspuntutik aitorpen-fasera iristen direnean izan ditugu kontuan, ordainketaren data zein den ere. Hala eta guztiz ere, konprobatu dugu aitortutako zenbatekoak, oro har, urte berean ordaintzen direla, eta diferentzia txiki batzuk sortzen direla ekitaldi bakoitzeko azken datei dagozkien ordainketetan.

Metodologia gisa, sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauei jarraituz egin da lan hau, eta azterlanaren helburuen eta lanaren berezitasunaren arabera beharrezkotzat jotako egokitzapenak egin dira.

Muga bat ez bada ere, aurkeztutako datuetan eragina du apunteak egiten direneko kontabilitate-kontusailen izenetan gertatu den aldaketak, bai eta zentro kudeatzaileen izenen aldaketak ere, Nafarroako Gobernuaren berrantolaketa administratiboen ondorioz.

Hori dela eta, ahal den neurrian, birsailkapen batzuk egin ditugu, kontabilitate kontzeptu desberdinen homogeneotasuna eta haien arteko alderaketa errazte aldera.

Muga bat ez bada ere, azpimarratu nahi dugu ezen, urte hauetan, araudian aldaketa garrantzitsuak izan direla; horri gehituz gero aztertutako aldia eta aurreko txostenaren data, zail gertatzen da NEZen kudeaketa eta kontrola bete beharreko prozedura edo baldintza berriei egokitzea.

Halaber, adierazi beharra daukagu 2013ko prestakuntza planaren betetze epea 2014ko uztailaren 31n amaitzen zela; hori dela eta, txosten hau idazteko garaian, haren likidazioa egin gabe dago.

## IV. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

Hona hemen egindako lanetik ateratzen diren ondorio orokorrak.

### IV.1. AURREKO TXOSTENEKO GOMENDIOAK.

Gomendioen aniztasuna eta haien zailtasun-maila desberdina direla eta, zail gertatzen da haiei buruzko ondorio orokor bat lortzea. V. atalean, aurreko txosteneko gomendioak banan-banan iruzkindu ditugu. Hala eta guztiz ere, esan dezakegu haietatik gehienak ezartzeko prozesua hasita dagoela.

Honakoak dira nabarmendu beharreko alderdi garrantzitsuenak:

• NEZen Gobernu Kontseiluak 2014ko azaroan hasi du estatutuak aldatzeko prozesua, haietatik kentze aldera entitate laguntzaileekin egiten diren lankidetza-hitzarmenen aurretik adostasuna emateko Batzorde Iraunkorrak duen eskudantzia.

• Adierazleen sistema funtsetik aldatu da, halako moduz non, gaur egun, finantzaketaren parte bat, ministeriotik heldu dena, neurri handi batean adierazle horien betetzearen menpe baitago.

• Landunen prestakuntzan, baimena ematen da beste entitate batzuek parte hartzeko, ordezkaritza handiena duten sindikatu- eta enpresari-erakundeez gainera. Haien parte-hartzea guztizko zenbatekoaren ehuneko zazpikoa izanen dela ezarri da.

• 2014rako, ikastaro desberdinengatik ordaintzen diren moduluen gehieneko zenbatekoak gutxitu dira.

### IV.2. BARNE-KONTROLA

Ikusi da NEZek egiten duen kontrola areagotzen ari dela. Hartara, lanbide-gaikuntza lortzera bideratutako ikastaro guztietara bisitak egiten dira, eta behin baino gehiagotan kasu guztietan; gainerako ikastaroetan, ekintzen kopuruaren ehuneko 30 inguru ikuskatzen da; portzentaje hori araudian ezarritakoaren ehuneko 5etik gorakoa da. Profesionaltasun ziurtagiria lortzera bideratutako ikastaroek landunei zuzendutakoen kopuruaren ehuneko 21 egiten dute (7,2 milioi) eta langabetuei zuzendutakoen ehuneko 71 (2 milioi).

Honakoak dira nabarmendu beharreko alderdi garrantzitsuenak:

• Aurrekontuen luzapenak, 2013an eta 2014an gertatu denak, 2012ko kontusail izendun batzuk berritzen ditu.

• Gastuak auditoria bidez edo faktura eta egiaztagiriak aurkeztuz justifikatzeko aukerari eusten zaio. 2013ko deialditik abiatuta, landunen ekintzen berrazterketa jada ez du eginen Fundazio Hirukoitzak Madriletik. Hori dela eta, NEZek bere kontrol-sistema diseinatu beharra dauka.

• Nagusiki landunei zuzendutako ikastaroetan, parte hartuko duten pertsonen hautapena entitate onuradunak egiten du, prestakuntza planaren lehentasunei, NEZek langabetuak direla-eta identifikatutako beharrei eta berdintasun- eta objektibotasun-irizpideei dagokienez. Langabetuei zuzendutakoen kasuan, hautapena enplegu-agentzien bitartez egiten da.

• Landunentzako ikastaroetan, NEZen zerbitzuek 185 ikastaro ikuskatu dituzte. Emandako kopuruaren ehuneko 44 egiten dute. Ikuskatutako ikastaroen ehuneko 8an, gorabeherak aurkitu dira. Eranskinean aurkeztu ditugu gorabehera horien laburpen bat, bai eta haiek konpontzeko proposamena ere.

• Bestela finantzatzen diren antzeko beste ikastaro batzuk badaude, oinarrizko nahiz goi mailako modulukoak, eta ikusi dugu kasuren batean ekimen pribatuaren bidezko ikastaro baten kostua txikiagoa dela NEZen ikastaroaren kostua baino.

• Ez-betetzeak aurkitzen diren kasuetan, funtzionario ikuskatzaileek ez dute beti amaierako erabakia ezagutzen; izan ere, erabaki hori NEZeko zuzendariak hartzen du.

• Gure lanaren osagarri gisa, dokumentazioa aztertuta iradokitako alderdi batzuk iruzkinduko ditugu; izan ere, haiek zehaztea edo konponbidean jartzea lagungarri gerta daiteke NEZen jarduera hobetzeko.

Axioma bat da kontrolaren kostua ezin dela izan espero diren etekinak baino handiagoa.

Hala eta guztiz ere, egungoak bezalako inguruabarretan, komenigarri gerta daiteke sektore publikoan gardentasuna eta kontrola areagotzea, duen kostuarekin ere.

Beste axioma batzuk dira NEZek ez duela zuzenean enplegurik sortzen, baizik eta "enplegagarritasuna" deitzen dena, bai eta enplegua lortzeko aukerak areagotzen dituen prestakuntza handiagoa ere.

Hala eta guztiz ere, egungo krisi ekonomikoaren iraupenak eta intentsitateak –horren adierazpen agerikoena langabezia-maila da– pentsarazi behar digu ez ote liratekeen ekintzak bideratu beharko enpresen eskakizunera eta profesionaltasun-ziurtagirietara, horren bidez eraginkortasun handiagoa lortzeko eta langabetuen kopurua jaisteko.

## IV.3. ENPRESARI- ETA SINDIKATU-ERAKUNDEEK JASOTAKO FUNTSAK.

UGTk, CCOOk eta CENek 2008-2010 aldian jasotako funtsek (horren barne direla ANAFEk eta INAFREk jasotakoak) 63 milioi egin zuten; 2011-2013 aldian, berriz, 54 milioikoak izan ziren. Horrenbestez, ehuneko 14ko jaitsiera izan da.

NEZetik heldutako funtsak, hiru erakunde horiek jasotakoak, 50 milioi eurokoak izatetik 44,9 milioi eurokoak izatera pasatu dira; ehuneko 10eko jaitsiera izan da, beraz. Kontusail aipagarriena enplegurako prestakuntzara bideratutakoa da, zeinaren helburua baitira, nagusiki, lana duten langileak; 2008-2010 aldian 23 milioikoa izatetik 2011-2013 aldian 5 milioikoa izatera pasatu da; ehuneko lauko igoera izan du, beraz.

Zentral sindikaletara bideratutako funtsak, beren ordezkagarritasunaren araberakoak, eta funtzionamendu-gastuak ordaintzekoak 779.205 eta 315.021 eurokoak dira 2011-2013 aldian, hurrenez hurren.

## IV.4. GOMENDIOAK

Egindako lanaren ondorioz, honako hau gomendatzen dugu:

• *Kontuen Ganberak NEZi buruzko honen aurreko txostenean emandako gomendioak, esplizituak zein inplizituak, ezartzen jarraitzea.*

• *Ikastaroen kontrola, prezioei dagokienez, aztertu eta sistematizatzea, eta haiek, ahal denean, merkatuan dauden antzeko beste batzuekin alderatzea.*

• *Barne komunikazioko prozedurak hobetzea, esku hartzen dutenek aurkitutako arau-hausteei finean eman zaien konponbidea ezagut dezaten.*

• *Aurkitu diren gorabeherak ikusita, aztertzea ez ote den komeni landunentzako ikastaroen ikuskatzea areagotzea.*

• *NEZen beraren kontrol-teknikarien txostenetatik heldu diren gomendioak presente izatea.*

• *Aztertzea ea jarduketa jakin batzuk, nola baitira azterlanak, ez ote diren hobeki ahokatzen laguntza teknikoaren kontzeptuan hitzarmenaren kontzeptuan baino; horrek, izan ere, berarekin ekarriko luke esleipen-prozedura ireki bat egotea.*

• *Aurreikustekoa denez bertaratzekoak ez diren ikastaroak areagotzea, haien diseinuan kontuan izatea zailtasun handiagoak egon daitezkeela haiek kontrolatzeko; horrek, izan ere, berarekin ekarri beharko du NEZek arlo informatikoan baliabide pertsonal gehiago erabiltzea.*

• *Ikastaro errepikakor batzuei eustearen eraginkortasuna eta komenentzia aztertzea, eta lehentasuna ematea enplegua lortzean edo, kasua bada, hari eustean azpimarra jartzen duten programei; halaber, baloratzea ikastaro guztien helburua ote den pertsonei prestakuntza ematea enplegu bat lor dezaten.*

• *Landunen ikastaroetan, gehiago azpimarratzea pertsonak egokiak izatea onartuta dauden ikastaroetarako, eta haien gaineko kontrola areagotzea; izan ere, gaur egun hautapen hori ikastaroen antolatzaileek egiten dute. Halaber, segurtatu beharra dago ikastaroetan parte har dezaketen kolektiboen kupoak betetzearen gaineko kontrola dagoela; izan ere, haien portzentajea prestakuntza planen multzo osorako ezartzen da, eta, horrenbestez, kontrola planaren likidazioa egitean baizik ezin da egin.*

## V. AZTERTUTAKO ALDERDIEI BURUZKO IRUZKINAK

Atal hau zabalago ematen dugu, aurreko ataleko ondorio orokorrak zehaztuz eta iruzkinduz.

### V.1. GOMENDIOEN EZARPENA

Ondoren, aurreko txostenean planteatutako hamahiru gomendioak (letra etzanez) aurkeztu ditugu, bai eta NEZek haiek direla-eta egindako jarduketa ere.

**Araudira egokitzea**

*1. Ekidin beharko litzateke entitate batek Nafarroako Enplegu Zerbitzua bezalako erakunde bateko zuzendaritza-organoetan dagoen aldi berean –lankidetza-hitzarmenetarako aurretiazko onespena ematen dute– horien onuradun izan ahal izatea, enplegurako lanbide-heziketako diru-laguntzen esparruan.*

Horri dagokionez, NEZek jakitera eman digu 2014ko azaroan bere Gobernu Kontseiluak aho batez onetsi duela estatutuak aldatzeko proposamen bat, zeinaren funtsa baita "entitate laguntzaileekin egiten diren lankidetza-hitzarmenen aurretik adostasuna emateko Batzorde Iraunkorrak duen eskudantzia" ezartzen duen artikulua kentzea.

*2. Abuztuaren 2ko ESS 1726/2012 Agindua onartu ondoren, Foru Komunitateak bere araudia egokitu beharko du eta landunei, zentroei eta behar bezala kreditatu eta inskribatutako prestakuntza-erakundeei zuzendutako prestakuntza planak egiten parte hartzeko aukera aurreikusi beharko du.*

Gomendio hori 2013ko deialditik bete da:

2013rako eta 2014rako deialdien oinarriek ahalbidetzen dute profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzearekin lotutako prestakuntzaren onuradunak izan ahal izatea "Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kreditatutako prestakuntza-zentro eta -entitateak".

NEZen Kontseiluak 2013rako onetsitako guztizko aurrekontutik –7,2 milioi euro–, prestakuntza plan horietarako kontusaila 499.240 eurokoa da; hau da, guztizkoaren ehuneko zazpi.

**Eraginkortasuna, eragimena eta ekonomia**

*3. Aurrekontu-programek zerbitzuaren jarduera baloratze aldera aurreikusten dituzten adierazleak berrikustea, jarduera-adierazleak eta bestelakoak barne, adierazle horiek aurrekontu-betetzearekin lotuz eta haztatuz, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jardueraren gaineko balorazio orokorra errazteàrren.*

Gure aurreko txostena 2012ko azaroan argitaratu zen, eta Nafarroako 2013ko eta 2014ko aurrekontuak luzatu egin dira. Hala eta guztiz ere, adierazi beharra dago ezen, Ministroen Kontseiluaren 2013ko abuztuaren 2ko erabakiaren bidez –2013-09-10eko EAOn argitaratua– 2013rako Enplegu Politikarako Urteko Plana (EPUP) onetsi dela, Enpleguari buruzko 56/2003 Legeko 4. ter artikulua betez.

EPUP horrekin, 2013tik aurrera, enplegu politika aktiboen programazio, kudeaketa, ebaluazio eta finantzaketarako eredu berri bat ezarri da, helburuak lortzera bideratua, betiere jarduketarako lehentasunezko jarraibide eta ardatzak betez. Eredu berri hori autonomia erkidegoekin adostu da, 2013ko apirilaren 11ko Enplegurako eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean.

Hori dela eta, EPUPa Enplegu Sistema Nazionala koordinatzeko tresna baten gisara egituratzen da. Sistema hori Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia erkidegoetako enplegu zerbitzu publikoek osatzen dute.

EPUPean, ekitaldi bakoitzean, Espainiako Enplegu Estrategiaren helburuak zehazten dira, kasuko urtean iritsi beharrekoak, eta enplegu politika aktiboetako ekintza eta neurri guztiak biltzen dira.

Helburuen betetze-maila ezagutzeko erabiliko diren adierazleak zehaztuko dira. Horrenbestez, ebaluaziorako tresna gisa egituratzen da.

Azkenik, emaitzen eta helburuen betetzearen arabera ezarriko dira funtsak banatzeko irizpideak. Finantzaketarako tresna bat ere bada.

2013rako EPUPean, honakoak ezarri dira:

a) 29 egiturazko helburu, 6 ardatzen arabera egituratuak (horietan enplegu politika aktibo guztiak sartzen dira).

1. ardatza. Orientazioa.

2. ardatza. Prestakuntza.

3. ardatza. Enplegu-aukerak.

4. ardatza. Enplegurako irispidean aukera-berdintasuna izatea.

5. ardatza. Ekintzailetza.

6. ardatza. Erakunde-esparrua hobetzea

b) 4 helburu estrategiko.

- Gazteen enplegagarritasuna hobetzea eta ekintzailetzarako laguntza ematea.
- Langabeziak bereziki ukitzen dituen beste kolektibo batzuen enplegagarritasuna hobetzea (langabezian luzaroan egondakoak, 55 urtetik gorakoak eta abar).
- Enplegurako lanbide-heziketaren kalitatea hobetzea.
- Enplegu politika aktiboen eta pasiboen arteko lotura hobetzea.

Enplegu zerbitzu publikoek garatzen dituzten ekintzak eta neurriak zuzendu beharko dira 4 helburu estrategiko horiek betetzera, eta, gainera, enplegu politika guztiak 6 ardatz horien esparruan sartuko dira, egiturazko helburuak betetze aldera.

Eredu berriari jarraituz, ekintza eta enplegu politika aktiboen neurri horiek guztiak ebaluatu eginen dira, ezarritako helburu estrategikoak (29) eta egiturazkoak (4) betetzeari dagokionez.

2013rako, 22 adierazle hautatu dira. Adierazle bat 4 helburu estrategikoetarako bakoitzerako, ehuneko 50eko garrantziarekin, eta 18 adierazle 28 egiturazko helburuetarako, ehuneko 50eko garrantziarekin.

Nafarroak, 2013an, 0,463ko adierazlearekin, hirugarren tokia bete zuen autonomia erkidegoen artean. Erkidegoen batez bestekoa 0,421ekoa izan zen. Nafarroa lehenengoa izan zen sei adierazletan, eta azkeneko tokian kokatu zen adierazle batean, hain zuzen ere profesionaltasun-ziurtagiria lortzearekin lotutako prestakuntza-ekintzen kopurua neurtzen duen horretan; halere, adierazi beharra dago 2013an autonomia erkidego batzuetan ez zela landunentzako prestakuntza ekintzarik egin eta prestakuntza planik ere ez zela izan, eta horrenbestez, erkidego horiek neurketan "onuradun" ateratzen zirela, nahiz eta zerbitzurik ez eman.

2014ko funts-banaketaren ehuneko 40 2013ko helburuen arabera egiten da, eta gainerako ehuneko 60a aurreko esparruaren jarraipena bermatzeko mekanismo baten bidez. Hori dela eta, Nafarroa pasa da 2013an banatzeko zeuden funts guztien ehuneko 1,01 jasotzetik 2014an banatutako 1.234.960.850 euroko kopuruaren ehuneko 1,03 jasotzera.

2013koa aldaketen eta zalantzen urtea izan da, zeren eta, enplegu politikak helburuen betetzera bideratu ahal izateko adierazleak ezagutzen ziren arren, ez ziren ezagutzen osagai eta adierazle bakoitzaren garrantzi espezifikoak, zeinak 2014ko apirileko Konferentzia Sektorialean eman baitzitzaizkien jakitera autonomia erkidegoei.

Adierazleak Estatuak lantzen ditu autonomia erkidegoek Estatuak kudeaketarako daukan sisteman (SISPE) sartzen duten informazioa abiapuntu hartuta, eta gaur egun NEZeko kudeatzaileek berek jotzen dute beharrezkoa dela adierazleen normalizazioan eta homogeneizatzean aurrerapausoak ematea. Horri dagokionez, adierazle horiek jasotzen dituen dokumentazioa aurkeztu digute, 2015eko aurrekontuen proiektuari begira.

*4. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpleguan eragiteko zein beste jarduera egin ditzakeen aztertzea, faktore askok baitute eragina.*

Azpimarra jartzen da enplegua sortzean kontratazio-konpromisoa biltzen duen prestakuntzarako laguntzen deialdiaren bitartez. Deialdi horietan arrakasta handiagoa izateko, deialdien testua aldatzen joan da, eta bidegabeko kaleratzeaz besteko arrazoiengatik kontratazio-konpromisoa ez betetzearen ondorioak malgutu dira, entitate gehiagok parte har dezaten.

**Lehentasunez langabetuei zuzendutako prestakuntza**

*5. Zentro berriak prestakuntza-jardueretara sartzea ia ezinezko bihurtzen duten baremoak berrikustea, eta, hala badagokio, aldatzea.*

2012, 2013 eta 2014ko deialdietarako oinarriaz aldatzen joan dira. Laburbilduz:

• Puntuazioaren irizpideari eutsi zaio, aurreko urteko prestakuntza-ekintzei buruzko inkesten arabera. Hala eta guztiz ere, lehenengo aldiz aurkezten diren zentroak ez kaltetzearren, zentro horiei ematen zaie aurreko urteko zentroei emandako puntuazioaren batez bestekoa.

• Kalitate-ziurtagiriaren irizpideari eusten zaio.

• Esperientzia baloratzen jarraitzen da, baina jada hura lotu gabe zentro jakin baterako onetsitako programaren betetze-mailarekin (horrek suposatzen zuen laguntza aurreko deialdian emana zela); izan ere, esperientzia lotuko da zentroa aurkezten deneko lanbide familia berarenak diren prestakuntzako espezialitateetan esperientzia ziurtatua edukitzearekin.

• Gaitasun teknikoa baloratzeko irizpide berri bat gehitzen da, bi faktoretan banatua: baliabide materialak eta giza baliabideak.

• Prestakuntza proposamenaren "balio erantsia" baloratzeko irizpide berri bat sartzen da. Ekintzetarako hobekuntza osagarrien proposamenak dira.

Irizpide horiek xehakatzen eta hobetzen joan dira deialdietan.

Horrenbestez, aldatu egin dira langabetuen prestakuntzarako deialdiaren baremoak. Egindako azterketatik ondoriozta daiteke aldaketekin errazagoa dela aurreko urtean deialdira aurkeztu gabeko zentroek laguntzak eskuratu ahal izatea.

Hartara, 2010eko datuak eta 2013ko datuak alderatuz gero, honakoak ikusiko ditugu: 2010ean, 28 zentro aurkeztu ziren, eta ekintza horietarako kopurua lau milioitik gorakoa izan zen; 2013an, ordea, 19 zentro aurkeztu ziren, eta bi milioiko kopurua izan zen. 19 zentro horietatik bederatzi 2010ean lankidetzan aritu gabekoak ziren.

Zerbitzuko kontu-hartzaileak, bere txostenetan, irizpide horiei edo haien aplikazioari buruzko hobekuntza batzuk iradoki ditu, honako alderdiak direla eta: gaitasun teknikoa; diruz lagun daitekeen gehieneko kopurua: auditorietan diruz lagun daitekeen kopurua; esleipenerako garrantzitsuenak diren irizpideak aintzat hartu behar izatea; emaitzek ekintzen banaketa ote dakarten eskatzaile bat baino gehiago dagoenean, eta abar.

Gure ustez, norabide horiek baliozkoak dira, eta NEZeko arduradunek kontuan hartu beharrekoak.

*6. Araudian gastua aitortu eta aplikatzeko irizpideak ahalik eta gehien zehaztea, ahal den neurrian araudia kasu zehatzetan interpretatu beharra saihesteko.*

*Irizpide batzuen aplikazioa oro har oinarrietan zehazten da, esate baterako kostu lotuak eta bestelako kostuak kalkulatzeko, eta haien aplikazio praktikoari buruzko azken erabakia auditoreak hartzen du.*

Bi gomendio horiek batera iruzkinduko ditugu.

2012, 2013 eta 2014ko langabetuentzako deialdiak aztertu ditugu.

2012ra arte, 16. oinarriko Bigarren atalak finantzatzekoak diren kostuak eta aplikazio-irizpideak aipatzen zituen, TAS/718/2008 agindua garatuz.

2013ko eta 2014ko deialdietako aldaketa, ordea, ESS/1726/2012 Aginduak TAS/718/2008 izenekoan bertan sartutako aldaketetarako egokitzapenetik heldu da.

Zehazki, lotutako kostuei dagokienez, aldaketa nagusia da lotutako kostuetan (argia, ura eta abar), muga jada ez dela prestakuntza-jardueraren kostuen ehuneko 20koa, baizik eta ehuneko 10ekoa; portzentaje hori ehuneko 15era arte zabaldu ahalko da lehentasunezkotzat jotzen diren ekintzetara bideratutako prestakuntza-ekintzen kasuan edo diru-laguntzaren onuradunak ez duenean azpikontratatzen jardueraren gauzatzea.

Adierazi beharra dago 2013ko deialdiak araudi berriari egokituta daudela eta 2014an hobera egin dutela. Horri dagokionez, adierazi behar dugu auditoria-txostenari buruzko errekerimenduak handitu egin direla. 2011tik 2014ra arte bilakaera bat gertatu da.

Hartara, 2014an, exijituko da txostena deialdian onetsitako ereduari egokitzea, non eskatzen baita berrikuspenaren zenbait alderdiri buruzko iritzia berariaz eman dadila, eta ez iritzia emateko lerrokada orokor baten bitartez.

Auditoria-txostenak finantza daitekeen kopurua ere mugatu du. Hartara, 2013an, "auditoria-txostena egitetik heldutako gastuak diruz laguntzekoak izanen dira, justifikatutako diru-laguntzaren ehuneko bosteko mugarekin".

2014an, "auditoria-txostena egitetik heldutako gastuak diruz laguntzekoak izanen dira, entitate onuradunak justifikatutako diru-laguntzaren ehuneko 2,75eraino, 8.000 euroko mugarekin".

2014an, gardentasunaren betebeharrari buruzko klausula bat ere sartu zen: "Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz, Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzak jasotzen dituzten entitate eta pertsona juridiko onuradunek gardentasunez aritzeko betebeharra izanen dute (..)”.

**Lehentasunez landunei zuzendutako prestakuntza**

*8. Nafarroako Enplegu Zerbitzuko justifikazio-datuetan ez da zehatz-mehatz islatzen ikasleen eta emandako orduen benetako kopurua. Hasierako adjudikazioan, ikastaroak 1.384 ziren, orduak 51.922 eta ikasleak 20.505. Gutxi gorabeherako datu hauek erabili ditugu ikasle eta orduko kostuak kalkulatzeko.*

Lehentasunez landunei zuzendutako prestakuntzaren justifikazio ekonomikoaren gaineko kontrola Fundazio Hirukoitzak egin du Madriletik. Hori dela eta, NEZek ez zituen ezagutzen egiazko egindako ikastaroei eta ikasleei buruzko datuak.

2013ko deialditik, NEZ arduratzen da espedienteen kudeaketaz eta justifikazio ekonomikoaz. 2013ko planak likidatu gabe zeuden gure lana egiteko unean; hori dela eta, ezin izan ditugu datu horiek egiaztatu. Lan hau egiteko unean, NEZ kontrol-eredua bururaino eramateko zain zegoen.

Honakoak dira 2013ko amaierako esleipenari buruzko datuak:

| Landunentzako 2013ko prestakuntza | Ikastaroak | Orduak | Ikasleak | Emandako kopurua |
|---|---|---|---|---|
| 1. plana, sektoreartekoa | 897 | 23.765 | 13.348 | 6.416.338 |
| 2. plana, gizarte ekonomia | 17 | 531 | 238 | 106.790 |
| 3. plana, autonomoak | 12 | 754 | 150 | 106.935 |
| 4. pl,ana, profesionaltasun-ziurtagiriak | 16 | 2.740 | 272 | 498.950 |
| Guztira | 942 | 27.790 | 14.008 | 7.129.013 |

**Langabeentzako eta landunentzako prestakuntza deialdien alderaketa:**

*9. Langabeen Lanbide Heziketan ikastaroen ehuneko 90 inguruk dute bederatzi euroko modulu bat.*

*Orduko eta ikasleko batez besteko kostua 9,41 euro da.*

*Landunen Lanbide Heziketan ikastaroen ehuneko 60 inguruk dute 13 euroko modulu bat.*

*2010ean orduko eta ikasleko batez besteko kostua, hasierako adjudikazioaren arabera, 11,74 euro da.*

*Irakaskuntzako kostua, orduko, 124 euro da langabeen kasuan eta 160 euro landunen kasuan.*

*Nafarroako Enplegu Zerbitzuan adierazi digutenez, alde horiek ikastaroen espezializazio eta iraupen desberdinen ondorioz gertatzen dira.*

2013ko prestakuntzarako deialdietako kontzesioen datuetatik abiatuta, ordu eta ikasle bakoitzeko batez besteko kostu ponderatua (orduei dagokiena) kalkulatu dugu, 2010eko deialdiarekin egin genuen bezala.

Kontuan hartu beharra dago 2013ko landunentako deialdia arau-aldaketek determinatu zutela. Deialdia lau planetean banatuta dago:

• Sektoreartekoa (zeina lehen zegoen bezala geratzen baita; ordezkagarritasun handiena duten agenteen alde).

• Ekonomia soziala.

• Autonomoak.

• Profesionaltasun-ziurtagiriak (NEZek ziurtatutako zentroentzat zabalik)

Postu beteak

| Landunentzako 2013ko prestakuntza | | Ikastaro kopurua | Orduak | Ikasle kopurua | Emandako kopurua | Ikasle eta ordu bakoitzeko batez besteko kostu ponderatua |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. plana. Sektoreartekoa | CEN | 372 | 8.870 | 5.451 | 2.138.710 | 12,33 |
| | UGT | 189 | 7.517 | 3.051 | 2.138.739 | 10,59 |
| | CCOO | 336 | 7.378 | 4.846 | 2.138.889 | 11,59 |
| | Guztira | | 23.765 | | 6.416.337,50 | 11,55 |
| 2. plana. Ekonomia soziala | | 17 | 531 | 238 | 106.790 | 12,67 |
| 3. plana. Autonomoak | UPTA | 5 | 293 | 70 | 66.135 | 8,68 |
| | ATA | 7 | 461 | 80 | 40.800 | 8,21 |
| | Guztira | | 754 | | 106.935 | 8,39 |
| 4. plana. Profesionaltasun-ziurtagiria | | 16 | 2740 | 272 | 498.950 | 12,00 |
| Guztira | | | 27.790 | 14.008 | 7.129.013 | |

2013ko landunentzako deialdiko ordu eta ikasle bakoitzeko kostua, sektorearteko planari dagokiona (UGT, CCOO eta CENentzako deialdi murriztua) 11,55 eurokoa da (2010eko kostuaren antzekoa, orduan 11,74 eurokoa izan baitzen).

Langabetuak

| Langabetuentzako 2013ko prestakuntza | Ikastaro kopurua | Orduak | Ikasle kopurua | Emandako kopurua | Ikasle eta ordu bakoitzeko batez besteko kostu ponderatua |
|---|---|---|---|---|---|
| Guztira | 65 | 12.240 | 1.272 | 2.086.200 | 8,67 |

Ikastaroen kostuei buruzko aurreko kalkuluak kontzesioaren datuetan oinarrituta egin ditugu.

Horrenbestez, oraindik ere alde nabarmenak daude landunentzako eta langabetuentzako ikastaroen prezioen artean.

Azpimarratu behar dugu langabetuentzako deialdian aldaketak egin direla. Hartara, "balio erantsia" izeneko esleipen-irizpidean, aukera ematen da ikastaro bakoitzeko 20 ikasle bitarte eskaintzeko, nahiz eta zentroari gehienez ere 15 ikaslerengatik ordaintzen zaion.

Landunentzako deialdiko profesionaltasun-ziurtagirietarako ikastaroetan, ez da jasotzen "balio erantsia" irizpidea, eta ikasle eta ordu bakoitzeko batez besteko kostua 12 eurokoa da; langabetuentzako deialdian, berriz, 8,67 eurokoa da.

Ikus dezakegu nola deialdiaren testuak eta baremoek azpimarra berezia jartzen duten prezioetan.

2014rako araudiak ezartzen du moduluen zenbatekoak aldatu egiten direla eta ikasle eta ordu bakoitzeko 9 eta 13 eurokoak izatetik 8 eta 11 eurokoak izatera pasa direla.

**Gizarte intereseko obrengatiko kontratazioak**

*10. Kontratazioral baldintzetan ez da eskatzen kolektibo behartsu batekoa izatea edo enplegu-eskatzaile gisa antzinatasun jakin bat izatea. Enpleguaren eskaintzan hau ageri da: “eskatutako lanera ongien egokitzen dena". Gure lana egin den garaian, oinarriei buruzko araudi berria prestatzen ari zen, inguruabar berrietara egokitzeko.*

Arau-aldaketa batzuk sartu dira. Honakoak dira alderdi nagusiak:

• Kontratazioen erdietan lehenetsitako kolektiboetako pertsonak hartzeko betebeharra.

• Lehenesten da zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsonak kontratatzea, eta ehuneko 50etik 90era bitarteko diru-laguntza ematen da lansari-kostuetarako, lortutako puntuazioaren arabera. Beste faktore batzuen artean, baloratzen da lehenetsitako kolektiboetako pertsonak kontratatzea, derrigorrezko gisa ezarritakoaren gainetik.

Honakoak dira deialdian lehenetsitako kolektibo gisa ezartzen direnak:

a) Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuak emandako gizarteratzerako edo gizarteratze eta laneratzerako diru-laguntzen hartzaileak.

b) 50 urtetik gorakoak.

c) 30 urtetik beherakoak.

d) Desgaitasuna duten pertsonak.

e) Gutxienez urtebeteko antzinatasunarekin izena emanda dauden iraupen luzeko langabetuak, kontratatuak izan zirenetik kontatzen hasita.

• Langabetuak edo aldi baterako kontratua duten langileak ekonomia sozialeko enpresetan langile-bazkide gisa modu mugagabean sar daitezen sustatzea, azpimarra jarriz, gainera, kolektibo ahuleneko bazkideak sartzean.

• Ekonomia sozialeko enpresa berrien eta eredu-proiektuen sorrera sustatzea.

• Enplegurako lantegi-eskoletarako diru-laguntzetan, laneratzea indartzea, funtsezko helburu gisa, bai eta proiektuen malgutasuna ere.

**INAFRErekin sinatutako hitzarmena.**

*11. Informazio ekonomikoa onuradun bakoitzarentzat aurkezten da orokorrean; proiektuko kostua ez dakigu zein den.*

*Agenteek zuzenean ematen diete dokumentazio ekonomikoa auditoreei.*

*NEZen kasuan, auditoreen txostenak aurkezten dira.*

UGTk eta CENek beren jarduera justifikatu dute auditoria-txosten baten bidez. NEZek ez zuen euskarri-dokumentazioa jaso, baizik eta auditorearen txostena.

CCOOren kasuan, auditoria-txostenik ez dago, eta NEZi diruz laguntzekoak diren gastuak frogatzeko dokumentazioa aurkeztu zitzaion. Teknikari batek berrikusten du egotzitako kostuak bat datozela onetsitako hitzarmenarekin. 2014ko hitzarmenerako, CCOOk auditoria-txosten baten bitartez eginen du egiaztapena.

2010. urteari dagokionez, berritasun nagusia da aldaketak sartu direla hitzarmenaren testuan. Hartara, hitzarmenak proiektu bakoitzari buruzko aurrekontu xehakatu bat jasotzen du, ez zerrenda huts bat, lehenago bezala. Agente bakoitzak eginen duen proiektu bakoitzerako, kostuaren xehakatzea zehazten da: langile gastuak, izenarekin eta jardunaldi-portzentajearekin, eta abar.

Ondorio nagusia da auditorearen txostenean proiektu bakoitzaren kostua zehazten dela (auditoreak justifikatu eta onetsitako gastua), modu orokorrean eman beharrean; horrenbestez, 2010ean ez bezala, orain bai ezagutzen da proiektu bakoitzaren kostua, auditoria-txostena duten entitateen kasuan –UGT eta CEN–.

CCOOren azterlanen kasuan, egotzitako gastuen nominak eta fakturak jasotzen dira, eta egiaztatzen da langileen eta gastuen egozpen-portzentajea bat datorrela hitzarmenean ezarritakoarekin.

*12. CCOOko auditorearen txostenean NEZi gomendioak egiten zaizkio, hitzarmenean zeharkako langileen dedikazioa eta proiektuetako gastu orokorrak egiaztatzeko eskatuz.*

2013ko eta 2014ko hitzarmena 2010ekoa eta 2011koa baino askoz ere zehatzagoa da, zeren eta gastuen egozpen-portzentajea ezagutzen baita. NEZek haien egozpen aritmetikoa egiaztatzen du, CCOOren kasuan, eta auditorea da egiaztapen hori UGTn eta CENen egiteko ardura duna; halere, ez da beti jasota gelditzen haren arrazoizkotasuna (batez ere, gastu orokorren kasuan).

*13. Hiru onuradunen artean alde handia dago proiektuko batez besteko prezioan. Onuradunen zeharkako langile-kostuaren emaitza da, neurri batean, alde hori.*

2013an, oraindik ere eragileen artean aldeak badaude proiektukako kostuan. Aldea finantzaketa modutik etor daiteke. CENi orain aholkularitza-ordu bakoitzarengatik ordaintzen zaio. CCOOri eta UGTri, berriz, egotzitako gastuengatik. CENek bere lanak kanpoan kontratatzen ditu; CCOOk eta UGTk, berriz, beren langileekin egiten dute.

Diruz lagundutako azterlanak entitate onuradunen jabetzakoak dira. Aztertutako gaien interes publikoa dela eta, jotzen dugu NEZek aztertu behar duela ea komenigarri zaion azterlanen titularra izatea; eta, kasu horretan, lizitazioari lotutako laguntza-kontratu baten bitartez egin behar dituen.

## V.2. NEZen KONTROLA

NEZen transferentziak honakora bideratzen dira, funtsean:

a) Enplegua Sustatzeko eta Aukera Berdintasunerako Zerbitzua. Espedienteak honako arloetan multzokatu daitezke:

- Toki entitateak.
- Desgaitasuna.
- Gizarte-bazterketaren arriskua duten kolektiboak.
- Irabazi asmorik gabeko entitateak.
- Lantegi eskolak.
- Autonomoak.
- Ekonomia soziala.
- Entitateekiko hitzarmenak:
- Ekintzaileen sarea (CEN, CEIN, UGT eta CCOO).
- Kolektibo ahulak (UGT, CCOO, Gurutze Gorria eta Secretariado Gitano erakundea).
- Enpleguaren arloko egonkortasuna: aholkularitza/sentsibilizazioa (CEN, UGT, CCOO).
- Berdintasuna: aholkularitza/sentsibilizazioa (CEN, UGT, CCOO).
- Sasoikako langileak (UAGN, UGT, CCOO).

b) Landunen prestakuntza. Lehen aipatu dugun bezala, 2013tik honela xehakatzen dira:

• Sektorearteko prestakuntza planak: Estatuaren esparruan eta foru erkidegoaren esparruan ordezkagarritasun handiena duten enpresa- eta sindikatu-erakundeei bideratuak.

1. planaren barruan ikastaroak ematen dituzten erakundeak Fundazio Hirukoitzekoak dira: CEN, CCOO eta UGT. CENen barruan, 35 entitate inguru, zeren eta entitate horretan prestakuntza hirugarrenekin azpikontratatzen baita.

• Gizarte ekonomiaren sektorearteko prestakuntza plan berariazkoak. Gizarte ekonomiako erakundeak ordezkatzen dituzten erakundeei zuzenduak (CEPES-fundanel).

• Autonomoei zuzendutako sektorearteko prestakuntza planak. Langile autonomoen lanbide-elkarteei zuzenduak:

ATA-Nafarroa eta UPTA-Ifes.

• Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzearekin lotutako berariazko prestakuntza planak. Hartzaileak: NEZek kreditatutako prestakuntza-zentro eta -entitateak.

c) Langabetuen prestakuntza. Ikastaro horietatik, 2013ko deialdian, hiru laurdenak, gutxi gorabehera, profesionaltasun-ziurtagiria lortzearekin lotuta daude.

### V.2.1. Enplegua Sustatzeko Zerbitzua

Zerbitzu horrek, 2013an, 24,7 milioi euro egiten duten jarduketak kudeatzen ditu. Horietatik, kontusail garrantzitsuenak honakoetarako transferentziei dagozkie: enplegu zentro bereziak, lantegi eskolen programa eta toki entitateentzako diru-laguntzak, interes sozialeko obra edo zerbitzuetarako kontratazioak egiteko. 14,6 milioi egiten dute. Gainerakoa zenbait programa eta hitzarmeni dagozkie:

2013tik aurrera, zerbitzu honetatik kudeatzen diren ekintza guztiek prozedura-eskuliburua daukate.

Eskuliburu horietan laguntzen kudeaketa administratiborako eta kontrolerako prozedura ezartzen da.

Ekintzetako bakoitzarentzat, prozedurari buruzko eskuliburua, lagina hautatzeko agiria eta bisitaaktaren eredua onesten dira.

Lagin bat aztertu dugu, egiaztatze aldera kontrola zenbateko ezarpen-maila daukan. Horretan, ez ditugu jaso ez lantegi-eskolak, ez enplegu zentro bereziak ere, beren berezitasuna dela eta. Bi hitzarmen –etorkinentzako prestakuntza- eta gizarteratze-ekintzak eta enplegu programa integralak– eta udal bat hautatu ditugu.

Egindako lanetik, honako hau nabarmenduko dugu:

2012ko aurrekontuak 2013rako eta 2014rako luzatzerakoan, 2012ko Aurrekontuei buruzko Foru Legean sartuta zeuden kontusail izendun batzuk jaso dira. Kontusail izendunak direnez, ez dago zertan deialdi publikoa atera, publizitate eta lehia baldintzen araberakoa.

2013an, bisitak egin nahi ziren etorkinentzako programen bi ekintzetara eta enplegu-programa integralen ekintza batera. Urte amaieran egin zirenez, bisita bakarra egin ahal izan zen. Emaitzak zuzenak izan ziren, programari eta bertaratuen kopuruari dagokienez. Kontrol hori telefono bidezko laginketa batekin osatu zen –etorkinen kasuan, bertaratuen ehuneko bi eta enplegukoen kasuan, ehuneko bost–: kasu guztietan bertaratzea egiaztatu zen.

Kontrol teknikoa NEZek egiten zuen. Bertatik zaintzen zen hitzarmenean ezarritako baldintzen betetzea, parte hartzen zuten kolektiboei buruzkoak, praktika-aldiak egiteko konpromisoei buruzkoak, geroko kontratazioari buruzkoak, eta abar.

Justifikazio ekonomikoa kontrolatzeko, bi bide daude:

Banku-entitateak kontratatutako auditoria-txostena. Justifikazio gisa aurkeztutako fakturak, zeinak auditoreari aurkezten baitzaizkio; gero auditoreak soilik finantzatzekoa den gastuari buruzko iritzia ematen du.

NEZi fakturak edo egiaztagiriak aurkeztuz: fakturatutako zerbitzu edo kontzeptuen xehetasunak eman behar ziren, bai eta ordainketarako egiaztagiriak ere.

CCOOrekiko hitzarmenean, ez zaigu nahikoa iruditzen faktura bakarra aurkeztea, kontraprestazioaren guztizko kopurua aipatuz, 600.376 euro; are gutxiago, faktura-egilea menpeko entitate bat denean. 2014rako hitzarmenean, klausula bat aldatu da, zeinaren arabera ANAFE ageri baita onuradun gisa; horrenbestez, gastu guztien justifikazio ekonomikoa aurkeztu beharra dauka.

Auditoria bidez justifikatzeko kasuan, aztertu beharko litzateke ez ote den komeni kontratazio hori NEZek berak egitea, zeina baita, azken batean, zerbitzu horiek ordaintzen dituena eta haien hartzailea. 2013ra arte, auditoriarako lansariak zirela-eta, justifikatutako diru-laguntzaren ehuneko 5era arteko diru-laguntza eman zitekeen; 2014an, berriz, entitate onuradunak justifikatutako diru-laguntzaren ehuneko 2,75era arteko diru-laguntza eman ahalko da, 8.000 euroko mugarekin.

Toki entitateen kasuan, kontrol bisitak egiten dira bertatik bertara, proiektuen ehuneko bostean. Egindako azterketan ez dugu aurkitu nabarmendu beharreko alderdirik.

### V.2.2. Landunen prestakuntza

Lau prestakuntza planentzat, honakoa da aurrekontuaren banaketa, NEZen Kontseiluak onetsitakoa:

| | Prestakuntza planaren mota | Aurrekontua Gehi. | %, guztizkoaren gainean |
|---|---|---|---|
| P1 | Sektorearteko prestakuntza planak | 6.418.800,00 | 89,00 |
| P2 | Gizarte ekonomiaren prestakuntza planak | 106.980,00 | 1,50 |
| P3 | Autonomoentzako prestakuntza planak | 106.980,00 | 1,50 |
| P4 | Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzearekin lotutako prestakuntza planak | 499.240,00 | 7,00 |
| | Bekak eta laguntzak | 100.993,49 | 1,00 |
| | Guztira | 7.232.993,49 | 100,00 |

Plan horien kudeaketarako, guztira 18 zentro kreditatu daude. Prestakuntza planak lehenesteko irizpideak autonomia erkidegoen esku uzten dira, haien plan estrategikoaren arabera. Nafarroan, lehentasunezko esparruak Moderna Planak ezarritakoak dira.

Parte hartuko duten pertsonen hautapena entitate onuradunak egiten du, prestakuntza planaren lehentasunei, NEZek langabetuak direla-eta identifikatutako beharrei eta berdintasun- eta objektibotasun-irizpideei dagokienez.

Entitate onuraduna izanen da hautapenaz arduratuko dena, eta berak bermatu beharko du partehartzaileek sarbidea izateko baldintzak edo oinarrizko gaitasunak dauzkatela, prestakuntza-ekintzak dauzkan eskakizunei dagokienez.

Nafarroako deialdiaren arabera, honako kolektiboek izanen dute sarbiderako lehentasuna:

Emakumeak, desgaituak, kualifikazio apaleko pertsonak, 45 urtetik gorakoak, 30 urtetik beherako gazteak, luzaroan langabezian egon direnak, enpresa txiki eta ertainetako langileak (bereziki, 50 langiletik beherako enpresetakoak) eta terrorismoak nahiz generoko indarkeriak ukitutako edo haien biktima diren pertsonak.

Ikus daitekeen bezala, kolektiboen kopurua oso zabala da, eta modu orokorrean aipatzen da, portzentajeak zehaztu gabe.

Nafarroaren 2013rako deialdian, prestakuntza planetan parte har dezaketenak aipatzerakoan, esaten da langabetuek ere deialdi honetan parte har dezaketela, ehuneko 40ko gehieneko batekin eta ehuneko 30eko gutxieneko batekin.

Partaidetza-portzentaje horiek prestakuntza plan guztietarako ezartzen da; hori dela eta, laginaren ikuskapenean ezin da alderdi hori egiaztatu.

Gehieneko modulu ekonomikoak (parte-hartzailearen eta prestakuntza-orduaren araberako kostua), prestakuntza emateko modalitatearen eta mailaren araberakoak, honakoak dira:

<table>
<tr><th rowspan="2">Prestakuntza emateko modalitatea</th><th colspan="2">Prestakuntza maila</th></tr>
<tr><th>Oinarrizkoa</th><th>Goi mailakoa</th></tr>
<tr><td>Bertaratzekoa</td><td>9 €</td><td>13 €</td></tr>
<tr><td>Teleprestakuntza</td><td colspan="2">7,5 €</td></tr>
<tr><td>Urrutiko prestakuntza konbentzionala</td><td colspan="2">5,5 €</td></tr>
</table>

Oinarrizko prestakuntza maila: Gaitasuna ematen du oinarrizko gaitasunak eta kualifikazioak garatzeko. Zeharkako gaiei edo gai orokorrei buruzko prestakuntza ematen denean aplikatuko da.

Goi mailako prestakuntza maila: Espezializazioa dakarten edo programazioko nahiz zuzendaritzako eskumenak garatzeko gaitasuna ematen duten gaiak jasotzen ditu.

Modulu honen kopurua prestakuntza-mailaren arabera ezartzen da, alde batera utzita ziurtagiria lortzera bideratzen den ala ez.

Araudiak ezartzen du 2014an, ziurtatutako ikastaroak ikasle eta ordu bakoitzeko 8 euroko prezioa izanen dutela, erkidego guztietan; gainerako ikastaroetan, gehieneko prezioak jaitsi dira, eta 13 eurotik 11 eurora pasa dira (landunen kasuan) eta 11 eurotik 9 eurora (langabetuen kasuan).

Sektorearteko planak 537 ekintza jasotzen ditu, 6,4 milioirekin. Profesionaltasun-ziurtagiria lortzera bideratutako ekintzak ehuneko 8 ziren, eta emandako zenbatekoaren ehuneko 16 egiten zuten.

Bertaratzekoak diren ikastaroek 5,8 milioi egiten dute, emandako 6,4 milioietatik. Guztiaren ehuneko 91 da hori. Ikastaro horietatik, ehuneko 77 gehieneko moduluaren arabera ematen dira; hau da, ordu eta ikasle bakoitzeko 13 euroko prezioan.

CENek prestakuntza-ekintza guztiak azpi-kontratatzen ditu.

2014ko deialdian, kontu-hartzaileak nabarmentzen du lizitatzaile guztiek puntuazio bera jasotzen dutela "lehentasunezko kolektiboak" irizpidean; horrek esan nahi du beharrezkoa dela organo kudeatzaileak baldintza hori *a posteriori* egiazta dezala. Halaber, aipatzen du entitate emailearen esperientzia baloratzen dela, baina, kasu batean, entitate horrek prestakuntza-ekintza guztiak azpikontratatzen ditu.

Kontrolari dagokionez, NEZek irizpide gisa planteatzen du deialdiaren ehuneko 30era bitarteko bisitak egitea.

Ikuskatze bisitak ezustean egiten dira, aurrez abisatu gabe. Ikastaroetara bertatik bertara egindako bisitetan, ikastaroaren bisitaren akta (eredu estandarra) betetzen da; elkarrizketak egiten dira ikasleekin, prestatzaileekin eta prestakuntzaren arduradunekin; irakasten ari diren edukiak aztertzen dira; parte-hartzaileen egiazko zenbatekoa egiaztatzen da; sinadurak, instalazioak eta erabilitako baliabide teknikoak kontrolatzen dira, eta abar.

Profesionaltasun-ziurtagiriei lotutakoen kalitateari buruzko jarraipenean, langabetuen kasuan gertatzen den bezala, haien ehuneko 100era joaten da, eta bizpahiru bisita programatzen dira.

2013an egindako ikuskatzeen datuak eman dizkigute, urte horretako deialdiari jarraituta. Hona datu horiek.

| | CEN | | UGT | | CCOO | | Guztira | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| NEZen 2013ko ikuskatzea | Emandako kopurua | Ekintza kopurua | Emandako kopurua | Ekintza kopurua | Emandako kopurua | Ekintza kopurua | Emandako kopurua | Ekintza kopurua |
| Ikuskatu direnak | 977.706,00 | 63 | 870.170,00 | 28 | 998.670,00 | 53 | 2.846.546,00 | 144 |
| Profesionaltasun-ziurtagiriarekin | 341.910,00 | 16 | 529.150,00 | 16 | 91.980,00 | 8 | 963.040,00 | 40 |
| Profesionaltasun-ziurtagiririk gabe | 635.796,00 | 47 | 341.020,00 | 12 | 906.690,00 | 45 | 1.883.506,00 | 104 |
| Ikuskatu gabeak | 1.161.004,00 | 193 | 1.268.568,50 | 78 | 1.140.219,00 | 122 | 3.569.791,50 | 393 |
| | 2.138.710,00 | 256 | 2.138.738,50 | 106 | 2.138.889,00 | 175 | 6.416.337,50 | 175 |
| Ikuskatuak/emandakoak (%) | 45,71 | | 40,69 | | 46,69 | | 44,36 | |

Batez beste emandako diru-zenbatekoaren ehuneko 44a ikuskatu da: 185 ikastaro, guztira. Ikuskatutako ekintzek 2.846.546 euro jaso dituzte.

- Profesionaltasun-ziurtagiriarekin lotutako prestakuntza-ekintzen ehuneko 100 ikuskatu dira (963.040 euro).
- Gainerakoa, 1.883.506 euroko balioarekin, ziurtagiririk gabeko prestakuntza-ekintzei dagokie.

NEZek egindako 185 ikuskatzeetatik, 14tan gorabeherak aurkitu dira. Eranskinean, gorabehera horien zerrenda bat ematen dugu, bai eta likidazio faserako proposatzen den konponbidea ere.

Gorabeheraren larritasunaren arabera, Fundazio Hirukoitzaren aplikazio informatikoan zuzenean sartzen da ala ez da sartzen, likidazioan kontuan har dadin. Hartara, esate baterako, baldin eta gorabehera prestatzailearen ebaluazio txar bat baldin bada, zentroari komunikazio bat igortzen zaio, hurrengo urteetan kontuan har dezan. Gorabehera likidazioan eragina izan dezakeen zerbaitengatik baldin bada, ordea, aplikazioan sartzen da. Gero, ez da jarraipen gehiagorik egiten; hori dela eta, teknikariek ez dute haren izapidea eta amaierako emaitza ezagutzen.

Hori horrela da 2012ra arte. 2013an, likidazio ekonomikoa ez du Fundazio Hirukoitzak eginen; izan ere, arestian aipatu bezala, NEZ arduratuko da kontrol eginkizun horretaz.

NEZek ikuskatutako ikastaro guztietatik, zortzi ekintzaren lagin bat hartu dugu; ekintza horietatik sei, bertaratu beharreko ikastaroak dira eta beste bi, teleprestakuntza bidezko ikastaroak. Egindako lanetik ondorioztatzen da modu desberdinean finantzatzen diren antzeko beste ikastaro batzuk badau-

dela, oinarrizko moduluaren bidez edo goragokoaren bidez, eta ikusi dugu kasuren batean ekimen pribatuaren bidezko ikastaro baten kostua txikiagoa dela NEZen ikastaroaren kostua baino; halaber, ondorioztatzen da inkestek zentro baten ikastaro bat oinarrizkotzat baloratzen dutela, nahiz eta NEZek goi mailako moduluaren gisako eskaria onartu duen.

### V.2.3. Langabetuen prestakuntza

Langabetuen kasuan, ikastaroak honela sailka daitezke:

• Programazio berekia: Iturrondo zentroa. Ez dago profesionaltasun-ziurtagiririk. *On line* gisako ikastaro batzuk badaude, erdi-bertaratzekoak direnak.

• Hezkuntza Departamentuaren programazioa: Hezkuntza Departamentuak espezialitate batzuk ematen ditu, kreditatutako ekimen pribatuko zentroek eskaintzen ez dituztenak. Inbertsio handia behar da, baina ez dago jarraitutasunaren bermerik. Lanbide heziketako ikastetxeak erabiltzen dira.

• Ikastaroaren araberako programazioa; hartara ekimen pribatuko zentro kreditatuek dute sarbidea.

Azken kasu horretan, guztira 65 ekintzatarako diru-laguntza ematen da, 2.086.200 euroko balioarekin; horietatik, 48 profesionaltsun-ziurtagiriei lotuta daude.

| Profesionaltasun-ziurtagiriak | Guztira, 2013an | |
|---|---|---|
| | Emandako kopurua | Akzio kopurua |
| BAI | 1.494.450 | 48 |
| EZ | 591.750 | 17 |
| Guztira | 2.086.200 | 65 |

Emandako kopuruaren guztizkotik ehuneko72 eta ekintza guztien ehuneko 74 ziurtagiria duten ikastaroetara bideratzen dira.

Emandako modulu ekonomikoari erreparatuta:

| Gehieneko modulu ekonomikoa | Emandako kopurua | Ehunekoa | Ikastaro kopurua | Ziurtagiri kopurua |
|---|---|---|---|---|
| 9 | 676.350,00 | 32,42 | 32 | 20 |
| 13 | 1.409.850,00 | 67,58 | 33 | 28 |
| Guztira | 2.086.200,00 | 100,00 | 65 | 48 |

Emandako diru-kopuruaren ehuneko 68 goi mailako prestakuntza ikastaroetara bideratzen da. 2014tik aurrera, profesionaltasun-ziurtagiriei lotutako prestakuntza-ekintzei aplikatzekoak zaizkien modulu ekonomikoak aldatu dira, eta 8 euroko prezioa jartzen zaie bertaratzeko modalitatean, eta 5 eurokoa teleprestakuntzako modalitatean.

Justifikazio ekonomikoa auditoria bidez eginen da.

Bisita eginen da ikastaro guztietara, ziurtagiria lortzekoak izan ala ez. Ikastaro kopuru txikiagoak eta landunei zuzendutako ikastaroen iraupen luzeagoak ahalbidetzen dute prestakuntza ekintza horien ehuneko 100 bisitatzea.

Hiru ikastaroren lagin bat hautatu dugu, eta ondoriozta daiteke aurreikusitako kontrola egiten dela.

V.3. ENPRESARI- ETA SINDIKATU-ERAKUNDEEK JASOTAKO FUNTSAK.

Ondoren, guztizko funtsak erakusten ditugu, 2011-2013 aldian ordezkagarritasun handiena duten enpresari- eta sindikatu-erakundeek jasotakoak: NEZetik eta Nafarroako beste departamentu batzuetatik heldu diren funtsak dira. Informazio hori zabaltzen dugu, aldi bererarako, sindikatu erakunde guztiek, beren ordezkagarritasunaren arabera, gastu orokorretarako jaso dituzten funtsekin.

**V.3.1. Guztizko funtsak.**

INAFRErentzako funtsak batzuetan erakunde horrek jasotzen ditu eta beste batzuetan, berriz, hura osatzen duten hiru erakundeen artean banatzen dira. Horregatik bereizi dira taulan.

INAFREk zuzenean jasotzen dituen kontusailak "enplegurako prestakuntza ekimen eta ekintzei" eta "enplegurako programa mistoei" dagozkie.

2008-2010 aldiari buruzko txostenean, INAFREk zuzenean jasotako funtsak ez ziren kontuan hartu; txosten honetan, ordea, kontuan hartu dira.

UGTk, CCOOk eta CENek 2008-2010 aldian jasotako funtsek (horren barne direla INAFEk eta INAFREk jasotakoak) 63 milioi egin zuten; 2011-2013 aldian, berriz, 54 milioi izan ziren. Beraz, ehuneko 14 jaitsi dira, hurrengo tauletan ikus daitekeen bezala:

2008-2010 aldia

| | | NEZ | INAFRE hitzarmena | Departamen-tuak | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| UGT | 2008 | 4.450.666 | 438.403 | 1.283.966 | 6.173.035 |
| | 2009 | 5.729.289 | 398.776 | 1.292.657 | 7.420.722 |
| | 2010 | 5.995.070 | 376.927 | 1.482.672 | 7.854.669 |
| | 2008-2010 | 16.175.025 | 1.214.106 | 4.059.295 | 21.448.426 |
| CCOO | 2008 | 4.430.717 | 426.940 | 1.104.188 | 5.961.845 |
| | 2009 | 5.596.584 | 390.729 | 1.199.834 | 7.187.147 |
| | 2010 | 5.950.471 | 372.915 | 1.414.826 | 7.738.212 |
| | 2008-2010 | 15.977.772 | 1.190.584 | 3.718.848 | 20.887.204 |
| CEN | 2008 | 4.284.926 | 324.096 | 902.487 | 5.511.509 |
| | 2009 | 4.940.189 | 368.770 | 916.357 | 6.225.316 |
| | 2010 | 5.205.743 | 327.431 | 980.028 | 6.513.202 |
| | 2008-2010 | 14.430.858 | 1.020.297 | 2.798.872 | 18.250.027 |
| | | 46.583.655 | 3.424.987 | 10.577.015 | 60.585.657 |
| ANAFE | 2008 | | | 442.545 | 442.545 |
| | 2009 | | | 407.113 | 407.113 |
| | 2010 | | | 491.102 | 491.102 |
| | 2008-2010 | | | 1.340.760 | 1.340.760 |
| INAFRE | 2008 | 316.526 | | | 316.526 |
| | 2009 | 486.407 | | | 486.407 |
| | 2010 | 311.099 | | | 311.099 |
| | 2008-2010 | 1.114.032 | | | 1.114.032 |
| Guztira, 08/10 | | 47.697.687 | 3.424.987 | 11.917.775 | 63.040.449 |

| | |
|---|---|
| | 47.697.687 |
| | 3.424.987 |
| NEZ, guztira | 51.122.674 |

2011-2013 aldia

| | | NEZ | INAFRE hitzarmena | Departamen-tuak | Guztira | % Aldak. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| UGT | 2011 | 5.470.755 | 316.333 | 1.050.696 | 6.837.784 | |
| | 2012 | 5.302.852 | 303.608 | 1.084.176 | 6.690.637 | |
| | 2013 | 4.608.169 | 166.569 | 560.600 | 5.335.337 | |
| | 2011-2013 | 15.381.777 | 786.510 | 2.695.472 | 18.863.759 | -12 |
| CCOO | 2011 | 5.410.219 | 332.876 | 1.030.955 | 6.774.050 | |
| | 2012 | 5.302.558 | 317.528 | 1.031.771 | 6.651.857 | |
| | 2013 | 4.480.247 | 273.330 | 592.518 | 5.346.095 | |
| | 2011-2013 | 15.193.024 | 923.734 | 2.655.243 | 18.772.002 | -10 |
| CEN | 2011 | 4.760.031 | 196.929 | 595.067 | 5.552.027 | |
| | 2012 | 4.216.017 | 217.109 | 444.683 | 4.877.808 | |
| | 2013 | 3.043.006 | 193.906 | 472.193 | 3.709.105 | |
| | 2011-2013 | 12.019.053 | 607.944 | 1.511.942 | 14.138.939 | -23 |
| | | 42.593.854 | 2.318.189 | 6.862.657 | 51.774.700 | -15 |
| ANAFE | 2011 | 124.800 | | 509.920 | 634.720 | |
| | 2012 | | | 458.699 | 458.699 | |
| | 2013 | | | 235.488 | 235.488 | |
| | 2011-2013 | 124.800 | | 1.204.108 | 1.328.908 | -1 |
| INAFRE | 2011 | 270.932 | | | 270.932 | |
| | 2012 | 314.135 | | | 314.135 | |
| | 2013 | 294.135 | | | 294.135 | |
| | 2011-2013 | 879.202 | | | 879.202 | -21 |
| Guztira, 11/13 | | 43.597.856 | 2.318.189 | 8.066.765 | 53.982.810 | -14 |

| | |
|---|---|
| | 43.597.856 |
| | 2.318.189 |
| NEZ, guztira | 45.916.045 |

Aurreko taulako datuetatik ondorioztatzen denaren arabera:

a) UGTk, 2011-2013 aldian, 2008-2010 aldian baino ehuneko 12 gutxiago jaso du.

b) CCOOk, 2011-2013 aldian, 2008-2010 aldian baino ehuneko 10 gutxiago jaso du.

c) CENek, 2011-2013 aldian, 2008-2010 aldian baino ehuneko 23 gutxiago jaso du.

d) INAFREek, 2011-2013 aldian, 2008-2010 aldian baino ehuneko 21 gutxiago jaso du zuzenean.

e) Anafek, 2011-2013 aldian, 2008-2010 aldian baino ehuneko bat gutxiago jaso du.

Oro har, erakunde horiek 2008-2010 aldian baino ehuneko 14 gutxiago jaso dute.

• Kontuan hartuta INAFREk jasotako kontusailak NEZetik heldu direla, sindikatu- eta enpresari-entitate horientzako finantzaketa honakoetatik heldu da:

| | 2008-2010 | 2011-2013 | Aldea (%) |
|---|---|---|---|
| NEZ | 51.122.674 | 45.916.045 | - 10 |
| Departamentuak | 11.917.775 | 8.066.765 | - 34 |
| | 63.040.449 | 53.982.810 | -14 |

Hau da, NEZetik heldu diren funtsek ehuneko hamar behera egin duten bitartean, departamentuetakoak 34 jaitsi dira.

### V.3.2. NEZetik datozen funtsak

NEZetik heldu diren ekarpenak aztertu ditugu, adierazgarrienak baitira, hiru erakundeek zuzenean jaso dituztenak. Ez ditugu aintzat hartu, horrenbestez, INAFREtik zuzenean jasotakoak. Honakoak dira jaso direnak, urtearen eta erakundearen arabera:

2008-2010 epea

| | 2008 | 2009 | 2010 | Guztira, 08-10 |
|---|---|---|---|---|
| CCOO | 4.857.657 | 5.987.312 | 6.323.386 | 17.168.356 |
| CEN | 4.609.022 | 5.308.959 | 5.533.174 | 15.451.155 |
| UGT | 4.889.070 | 6.128.065 | 6.371.997 | 17.389.131 |
| Guztira | 14.355.749 | 17.424.336 | 18.228.557 | 50.008.642 |

2011-2013 epea

| | 2011 | 2012 | 2013 | Guztira, 11-13 | 11/13 / 08-10 aldea (%) |
|---|---|---|---|---|---|
| CCOO | 5.743.095 | 5.620.086 | 4.753.577 | 16.116.759 | -6 |
| CEN | 4.956.960 | 4.433.125 | 3.236.912 | 12.626.997 | -18 |
| UGT | 5.787.089 | 5.606.461 | 4.774.738 | 16.168.287 | -7 |
| Guztira | 16.487.144 | 15.659.672 | 12.765.227 | 44.912.043 | % -10 |

2011-2013 aldiko transferentziek ehuneko 10 egin dute behera; kopururik handiena CENi dagokio: ehuneko 18 dira. Kontzeptuen arabera, honakoei dagozkie kopuru horiek:

| Kontzeptua | 2008-2010 | 2011-2013* | Aldea (%) |
|---|---|---|---|
| Enplegurako Lanbide Heziketa, langile okupatuei lehentasunez zuzendua. | 22.580.201 | 23.500.538 | 4 |
| UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, laneratzerako orientazio-ekintzak egiteko | 5.542.037 | 4.420.482 | -20 |
| Enplegu Plana. INAFRErekiko hitzarmena, Enplegu Behatokirako | 3.424.987 | 2.318.189 | -32 |
| Enplegu Plana. CEN, UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, egonkortasun-programetarako –aitortu gabeko enplegua erregulatzea– | 2.636.490 | 2.306.002 | -13 |
| Langileen enplegu-prestakuntzarako ekintzak | 2.805.372 | 1.576.260 | -44 |
| UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, etorkinentzako prestakuntza- eta laneratze-ekintzak egiteko | 1.826.750 | 1.500.457 | -18 |
| Enplegu Plana. UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, enplegu programa integralak egiteko | | 1.240.844 | |
| CENekiko hitzarmena, zuzendaritzako langileei prestakuntza emateko programetarako eta familia-enpresetan jarduketak egiteko | 1.757.594 | 1.211.482 | -31 |
| Enplegu Plana. UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, etorkinentzako prestakuntza- eta laneratze-ekintzak (kofinantzatu gabeak) egiteko | | 1.038.968 | |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, berdintasuneko, bateragarritasuneko eta emakumeen enplegurako programetarako | 1.063.181 | 1.009.409 | -5 |
| CENekiko hitzarmena, berdintasuneko, bateragarritasuneko eta emakumeen enplegurako programak egiteko | 1.232.636 | 908.509 | -26 |
| Enplegu Plana. Laneratzeko orientabidean lankide diren entitateen ekintza pertsonalizatuak | | 722.000 | |
| Hitzarmena UAGN, UGT eta CCOOrekin, nekazaritzaren arloko enplegu-programetarako | 652.172 | 601.521 | -8 |
| Enplegu Plana. UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko | 824.250 | 519.656 | -37 |
| Enplegu Plana. Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenentzako konpentsazioa, bertan parte hartzeagatik | 518.343 | 513.000 | -1,03 |
| Krisiaren aurkako neurriak-9 Enplegagarritasun-ibilbideetarako diru-laguntzak | 2.162.595 | 468.647 | -78 |
| CENekiko hitzarmena, ekintzailetzako, autonomoentzako eta berrikuntzako programetarako | 277.500 | 442.962 | 59 |
| INAFREri enplegurako prestakuntzari buruzko plangintzan parte hartzeagatik ordaindutako konpentsazioa | 393.000 | 427.500 | 9 |
| Enplegu-programa esperimentalak | 249.600 | 124.800 | -50 |
| Administrazio publikoek kontratazioa egiteko diru-laguntzak | 50.833 | 60.817 | 20 |
| Krisiaren aurkako neurriak. Kualifikazio-prestakuntzarako diru-laguntza | 898.425 | 0 | |
| INAFRErekiko hitzarmena Prestakuntza jarraituko ekintzak (Soilik 2008koak, 2009tik aurrera, INAFRE) | 1.048.840 | 0 | |
| Prestakuntzarako ekintza osagarriak | 53.836 | 0 | |
| Krisiaren aurkako neurriak. Kontratazioa sustatzeko diru-laguntzak | 10.000 | 0 | |
| NEZek jasotakoa, guztira | 50.008.642 | 44.912.043 | -10 |

*Handitik txikirako hurrenkeran, 2011-2013.

Taulatik ondorioztatzen denez, kontusailik handiena da nagusiki langile landunei zuzendutakoa. 2011-2013 aldian 23,5 milioi euro egiten du. Ehuneko lau egun du gora. Hazkunde portzentual handiena CENekiko hitzarmenari dagokio, ekintzailetza programetarako –ehuneko 59–; halere, haren zenbatekoa, guztizkoan, ez da oso adierazgarria.

Halaber, administrazio publikoek kontratazioak egiteko diru-laguntzak eta INAFRErentzako ekarpena –enplegurako prestakuntzaren plangintzan parte hartzeagatik– handitzen dira; gainerako kontusailek behera egiten dute aurreko aldiarekin alderatuta.

Hurrengo tauletan, kopuru horiek xehatzen ditugu, kontzeptuaren, urtearen eta jasotzailearen arabera.

2008-2010 epea

| Kontzeptua | CCOO, 2008 | CCOO, 2009 | CCOO, 2010 | CEN, 2008 | CEN, 2009 | CEN, 2010 | UGT, 2008 | UGT, 2009 | UGT, 2010 | Guztira* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| LHE, nagusiki langabetuentzat | 1.643.411 | 2.899.551 | 2.902.360 | 1.733.409 | 2.970.863 | 2.985.098 | 1.643.755 | 2.898.495 | 2.903.260 | 22.580.201 |
| UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, laneratzerako orientazio-ekintzak egiteko | 871.019 | 950.000 | 950.000 | | | | 871.019 | 950.000 | 950.000 | 5.542.037 |
| INAFRErekiko hitzarmena: CEN / deitutako diru-laguntzak Enpleguaren behatokia | 426.940 | 390.729 | 372.916 | 324.096 | 368.769 | 327.431 | 438.404 | 398.776 | 376.927 | 3.424.987 |
| Langileen enplegu-prestakuntzarako ekintzak | 468.795 | 174.528 | 174.756 | 840.910 | 170.363 | 175.032 | 480.000 | 147.828 | 173.160 | 2.805.372 |
| Hitzarmena UGT, CCOO, eta CENekin, egonkortasun-programetarako | 338.245 | 410.000 | 380.000 | 140.000 | 140.000 | 70.000 | 338.245 | 410.000 | 410.000 | 2.636.490 |
| Krisiaren aurkako neurriak. Enplegu-ibilbideetarako diru-laguntzak | | | 761.000 | | | 750.100 | | | 651.495 | 2.162.595 |
| UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, prestakuntza- eta laneratze-ekintzak egiteko | 373.375 | 300.000 | 240.000 | | | | 373.375 | 300.000 | 240.000 | 1.826.750 |
| CENekiko hitzarmena, zuzendaritzako langileei prestakuntza emateko programetarako eta familia-enpresetan jarduketak egiteko | | | | 554.750 | 652.500 | 550.344 | | | | 1.757.594 |
| CENekiko hitzarmena, berdintasuneko, bateragarritasuneko eta emakumeen enplegurako programak egiteko | | | | 432.636 | 400.000 | 400.000 | | | | 1.232.636 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, berdintasuneko eta bateragarritasuneko programetarako | 176.591 | 180.000 | 170.000 | | | | 176.591 | 180.000 | 180.000 | 1.063.181 |
| INAFRErekiko hitzarmena, enplegurako prestakuntza-ekimen eta ekintzak egiteko | 280.000 | | | 499.440 | | | 269.400 | | | 1.048.840 |
| Krisiaren aurkako neurriak. Kualifikazio-prestakuntzarako diru-laguntza | | 282.150 | | | 333.300 | | | 282.975 | | 898.425 |
| UGT eta CCOOrekiko hitzarmena: etorkinak | 90.125 | 180.000 | 142.000 | | | | 90.125 | 180.000 | 142.000 | 824.250 |
| Hitzarmena UGNA, UGT eta CCOOrekin, enplegu-programetarako | 105.376 | 110.355 | 110.355 | | | | 105.376 | 110.355 | 110.355 | 652.172 |
| Enplegu-planen jarraipen batzordearentzako konpentsazioa | 52.781 | 60.000 | 60.000 | 52.781 | 60.000 | 60.000 | 52.781 | 60.000 | 60.000 | 518.343 |
| INAFREri plangintzan parte hartzeagatik ordaindu beharreko konpentsazioa | 31.000 | 50.000 | 50.000 | 31.000 | 50.000 | 50.000 | 31.000 | 50.000 | 50.000 | 393.000 |
| NEZek CENekin egindako hitzarmena, ekintzailetza-programetarako | | | | | 150.000 | 127.500 | | | | 277.500 |
| Enplegu-programa esperimentalak | | | | | | | | 124.800 | 124.800 | 249.600 |
| Prestakuntzarako ekintza osagarriak | | | | | | | 19.000 | 34.836 | | 53.836 |
| Administrazio publikoek kontratazioa egiteko diru-laguntzak | | | | | 13.163 | 37.669 | | | | 50.833 |
| Krisiaren aurkako neurriak. Kontratazioa sustatzeko diru-laguntzak | | | 10.000 | | | | | | | 10.000 |
| NEZek guztira jasotakoa (hiru hartzekodunak) | 4.857.657 | 5.987.312 | 6.323.386 | 4.609.022 | 5.308.959 | 5.533.174 | 4.889.070 | 6.128.065 | 6.371.997 | 50.008.642 |

*Handitik txikirako hurrenkeran.

2011-2013 epea

| Kontzeptua | CCOO, 2011 | CCOO, 2012 | CCOO, 2013 | CEN, 2011 | CEN, 2012 | CEN, 2013 | UGT, 2011 | UGT, 2012 | UGT, 2013 | Orokorra, guztira* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Enplegurako Lanbide Heziketa, langile okupatuei lehentasunez zuzendua. | 2.898.749 | 2.647.802 | 2.138.859 | 2.970.338 | 2.993.320 | 2.137.795 | 2.903.233 | 2.671.734 | 2.138.709 | 23.500.538 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, laneratzeko orientazio-ekintzetarako | 676.875 | 857.375 | 702.103 | | | | 676.875 | 746.976 | 760.277 | 4.420.482 |
| Enplegu Plana. INAFRErekiko hitzarmena, Enplegu Behatokirako | 332.876 | 317.528 | 273.330 | 196.929 | 217.109 | 193.906 | 316.333 | 303.608 | 166.569 | 2.318.189 |
| Enplegu Plana. CEN, UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, egonkortasun-programetarako –aitortu gabeko enplegua erregulatzea– | 388.338 | 359.431 | 366.764 | 53.824 | 23.921 | 33.991 | 388.338 | 368.921 | 322.475 | 2.306.002 |
| Langileen enplegu-prestakuntzarako ekintzak | 405.030 | | | 405.220 | 361.000 | | 405.010 | | | 1.576.260 |
| UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, etorkinentzako prestakuntza- eta laneratze-ekintzak egiteko | 456.000 | 146.205 | 138.083 | | | | 436.000 | 168.093 | 156.076 | 1.500.457 |
| Enplegu Plana. UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, enplegu programa integralak egiteko | | 319.675 | 297.500 | | | | | 330.750 | 292.919 | 1.240.844 |
| CENekiko hitzarmena, zuzendaritzako langileei prestakuntza emateko programetarako eta familia-enpresetan jarduketak egiteko | | | | 517.331 | 367.273 | 326.878 | | | | 1.211.482 |
| Enplegu Plana. UGT eta CCOOrekiko hitzarmena, etorkinentzako prestakuntza- eta laneratze-ekintzak (kofinantzatu gabeak) egiteko | | 243.675 | 230.138 | | | | | 280.155 | 285.000 | 1.038.968 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, berdintasuneko, bateragarritasuneko eta emakumeen enplegurako programetarako | 171.000 | 162.895 | 171.000 | | | | 165.500 | 171.000 | 168.015 | 1.009.409 |
| CENekiko hitzarmena, berdintasuneko, bateragarritasuneko eta emakumeen enplegurako programak egiteko | | | | 380.000 | 242.257 | 286.253 | | | | 908.509 |
| Enplegu Plana. Laneratzeko orientabidean lankide diren entitateen ekintza pertsonalizatuak | | 361.000 | | | | | | 361.000 | | 722.000 |
| CENekiko hitzarmena, ekintzailetzako, autonomoentzako eta berrikuntzako programetarako | | | | 206.500 | 103.080 | 133.382 | | | | 442.962 |
| Hitzarmena UAGN, UGT eta CCOOrekin, nekazaritzaren arloko enplegu-programetarako | 104.977 | 100.001 | 99.145 | | | | 104.977 | 99.723 | 92.698 | 601.521 |
| Enplegu Plana. UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko (2013) | | | 232.156 | | | | | | 287.500 | 519.656 |
| Krisiaren aurkako neurriak-9 Enplegagarritasun-ibilbideetarako diru-laguntzak | 204.750 | | | 102.375 | | | 161.522 | | | 468.647 |
| INAFREri enplegurako prestakuntzari buruzko plangintzan parte hartzeagatik ordaindutako konpentsazioa | 47.500 | 47.500 | 47.500 | 47.500 | 47.500 | 47.500 | 47.500 | 47.500 | 47.500 | 427.500 |
| Enplegu Plana. Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenentzako konpentsazioa, bertan parte hartzeagatik | 57.000 | 57.000 | 57.000 | 57.000 | 57.000 | 57.000 | 57.000 | 57.000 | 57.000 | 513.000 |
| Enplegu-programa esperimentalak | | | | | | | 124.800 | | | 124.800 |
| Administrazio publikoek kontratazioa egiteko diru-laguntzak | | | | 19.943 | 20.667 | 20.207 | | | | 60.817 |
| NEZek jasotakoa, guztira | 5.743.095 | 5.620.086 | 4.753.577 | 4.956.960 | 4.433.125 | 3.236.912 | 5.787.089 | 5.606.461 | 4.774.738 | 44.912.043 |

*Handitik txikirako hurrenkeran.

### V.3.3. Beste departamentuetatik heldutako funtsak

Beste departamentuetatik heldutako funtsak eta haien bilakaera ondorengo taulan ikus daitezke.

| KONTZEPTUA | 2008-2010 | 2011-2013 | Aldea (%) |
|---|---|---|---|
| Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin, lan arriskuen prebentziorako programetarako | 2.585.457 | 2.188.830 | -15 |
| Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin, lan arriskuen prebentziorako ordezkarietarako | 2.269.584 | 1.758.912 | -23 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, etorkinak laneratze eta gizarteratzeko | 1.500.000 | 868.302 | -42 |
| Sindikatu-zentralei egindako transferentzia, ordezkagarritasunaren araberakoa | 584.507 | 441.871 | -24 |
| Hizkuntzen eta kulturen arteko bitartekaritza-programarako laguntza-kontratua | | 367.680 | |
| Istripuak kontrolatzeko batzordeko kiden diren erakundeentzako konpentsazioa | 521.881 | 301.672 | -42 |
| PFEZaren % 0,7ko funtsa Prestaziorik gabeko langabetuentzako arreta | 82.818 | 239.233 | 189 |
| Enplegu Plana. CENekiko hitzarmena, ingurumenaren arloko hobekuntza-, dinamizazio- eta sentsibilizazio-programetarako | 232.500 | 468.569 | 102 |
| Lan eta Immigrazio Ministerioarekiko hitzarmenetik heldutako jarduketak, etorkinak gizartera-tzekoak | 350.178 | 275.963 | -21 |
| UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, etorkinak laneratu eta gizarteratzeko Europako gizarte funtsa | | 240.000 | |
| Diru-laguntzak bazterketa sozialaren arloan diharduten erakundeendako | 130.509 | 90.146 | -31 |
| UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, gazteentzako lan-orientaziorako | 321.698 | 110.000 | -66 |
| Desgaitasunak dituzten pertsonen arloko entitateek lan egiteko diru-laguntzak | | 109.057 | |
| Lehentasunezko laneko arriskuei buruzko proiektuak | | 93.996 | |
| Gizarteratzeko etxebizitzen programa | 219.402 | 197.794 | -10 |
| Gazteen elkarteen programetarako diru-laguntzak | 12.820 | 62.821 | 390 |
| Sindikatu-erakundeentzako diru-laguntzak | | 39.984 | |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, Gizarte Zerbitzuen Legea garatzeko | 398.778 | 38.819 | -90 |
| Sindikatuei ordaindutako konpentsazioa, sindikatuen hauteskunde-prozesuaren jarraipeneko batzordeko kideak direla eta | | 37.012 | |
| Gizarte ekimeneko entitateekiko jarduketak, etorkinak integratzeko | | 31.500 | |
| Lan Ministerioarekiko hitzarmenetik heldutako jarduketak | 597.693 | 29.052 | -95 |
| Funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak | | 19.142 | |
| Emakumeen elkarteentzako eta beste entitate batzuentzako transferentziak | 4.865 | 18.141 | 273 |
| Sindikatu-erakundeen funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntza | | 12.530 | |
| Energia aurrezteko eta energia-efizientziarako jarduketak | | 7.924 | |
| Sindikatu-ordezkarien bidaiak eta dietak | | 6.889 | |
| Enplegu Plana. UGTrekin eta CCOOrekin eginiko hitzarmena, Gizarte Gaietako Legea gara-tzeko eta desgaitasuna duten pertsonen kontratazioarako | | 6.259 | |
| Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena | | 1.791 | |
| Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren gastuak | | 1.500 | |
| Gazteen entitateen ekipamendua | 1.350 | 1.013 | -25 |
| Epaiak betetzea | | 354 | |
| Lan Gatazkak Ebazteko Auzitegiaren ordainketa | 954.845 | | |
| Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte-hartzeagatiko konpentsazioa | 625.144 | | |
| Sindikatuen hauteskunde-prozesuaren jarraipen batzordea dela-eta sindikatuei ordaindutako konpentsazioa | 144.753 | | |
| Ordezkaritza duten sindikatuentzako diru-laguntza: UGT eta CCOO | 100.000 | | |
| 3. Helbururako diru-laguntza orokorra-Europako Gizarte Funtsa | 93.669 | | |
| Lan eskubideak gazteen artean ezagutarazteko programa | 37.500 | | |
| Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan parte-hartzea | 31.090 | | |
| Enpresa txiki eta ertainen eta mikroenpresen digitalizazio proiekturako diru-laguntza | 7.331 | | |
| Diru-laguntzak eta lehiakortasunerako beste hobekuntza batzuk | 5.089 | | |
| Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzea | 4.050 | | |
| Etorkinak laneratzeko ibilbideak | 100.000 | | |
| Bestelako gastu askotarikoak | 266 | | |
| Guztira | 11.917.775 | 8.066.764 | -34 |

Ikus daitekeen bezala, departamentuetatik heldu diren funtsak ehuneko 34 jaitsi dira

Hurrengo tauletan, kontzeptuen, onuradunen eta urteen araberako xehakatzea ematen dugu:

## 2008-2010 epea

| Kontzeptua | ANAFE, 2008 | CEN, 2008 | UGT, 2008 | CCOO, 2008 | ANAFE, 2009 | CEN, 2009 | UGT, 2009 | CCOO, 2009 | ANAFE, 2010 | CEN, 2010 | UGT, 2010 | CCOO, 2010 | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin, lan arriskuen prebentziorako programetarako | | 287.598 | 278.260 | 279.599 | | 290.000 | 290.000 | 290.000 | | 290.000 | 290.000 | 290.000 | 2.585.457 |
| Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin, lan arriskuen prebentziorako ordezkarietarako | | 264.559 | 257.966 | 264.559 | | 290.000 | 265.000 | 265.000 | | 132.500 | 265.000 | 265.000 | 2.269.584 |
| Lan Gatazkak Ebazteko Auzitegiaren ordainketa | | 153.425 | 80.750 | 80.750 | | 159.220 | 84.930 | 84.930 | | 152.380 | 79.230 | 79.230 | 954.845 |
| Sindikatu-zentralei egindako transferentzia, ordekagarri-tasunaren araberakoa | | | 118.347 | 93.003 | | | 103.713 | 82.182 | | | 103.497 | 83.764 | 584.507 |
| CENekiko hitzarmena, ingurumenaren arloko hobekun-tza-, dinamizazio- eta sentsibilizazio-programetarako | | | | | | | | | | 232.500 | | | 232.500 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, etorkinen laneratze eta gizarteratzerako | | | | | | | 175.000 | 175.000 | | | 175.000 | 175.000 | 700.000 |
| Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte-hartzeagatiko konpentsazioa | | 137.238 | 58.816 | 39.211 | | 113.715 | 48.735 | 32.490 | | 113.715 | 48.735 | 32.490 | 625.144 |
| Istripuak kontrolatzeko batzordeko kiden diren erakun-deentzako konpentsazioa | | 57.962 | 55.958 | 57.961 | | 58.333 | 58.333 | 58.333 | | 58.333 | 58.333 | 58.333 | 521.881 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, etorkinak laneratze eta gizarteratzeko | | | | | | | 125.000 | 125.000 | | | 125.000 | 125.000 | 500.000 |
| Lan Ministerioarekiko hitzarmenetik heldutako jarduke-tak | 138.031 | | | | 229.258 | | | | 230.404 | | | | 597.693 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, Zerbitzuen Legea garatzeko | | | | | | | | | | | 198.778 | 200.000 | 398.778 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, etorkinak laneratze eta gizarteratzeko | | | 150.000 | 150.000 | | | | | | | | | 300.000 |
| UGT eta CCOO sindikatuekiko hitzarmenak, gazteen-tzako lan-orientaziorako | | | | | | | 55.000 | 55.000 | | | 54.198 | 55.000 | 219.198 |
| Lan eta Immigrazio Ministerioarekiko hitzarmenetik heldutako jarduketak | 84.993 | | 49.538 | | 65.911 | | 56.590 | | 55.385 | | 37.762 | | 350.178 |
| Sindikatuen hauteskunde-prozesuaren jarraipen batzor-dea dela-eta sindikatuei ordaindutako konpentsazioa | | | 26.326 | 26.326 | | | 23.025 | 23.025 | | | 23.025 | 23.025 | 144.753 |
| Gazteentzako lan-orientabideko programa | | | 51.250 | 51.250 | | | | | | | | | 102.500 |
| Ordezkaritza duten sindikatuentzako diru-laguntza: UGT eta CCOO | | | 50.000 | 50.000 | | | | | | | | | 100.000 |
| 3. Helbururako diru-laguntza orokorra-Europako Gizarte Funtsa | | | 93.669 | | | | | | | | | | 93.669 |
| % 0,7ko funtsa. Prestaziorik gabeko langabetuentzako arreta | | | | | | | | | 82.818 | | | | 82.818 |
| Gizarteratzeko etxebizitzen programa | 72.071 | | | | 69.246 | | | | 78.085 | | | | 219.402 |
| Diru-laguntzak bazterketa sozialaren arloan diharduten erakundeendako | 43.400 | | | | 42.699 | | | | 44.410 | | | | 130.509 |
| Etorkinak laneratzeko ibilbideak | 100.000 | | | | | | | | | | | | 100.000 |
| Lan eskubideak gazteen artean ezagutarazteko pro-grama | | | | | | | | | | | 18.750 | 18.750 | 37.500 |
| Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan parte-hartzea | | 1.440 | 840 | 9.743 | | | | 8.874 | | 600 | 360 | 9.234 | 31.091 |
| Gazteen elkarteen programetarako diru-laguntzak | | | 7.816 | | | | | | | | 5.004 | | 12.820 |
| Enpresa txiki eta ertainen eta mikroenpresen digitaliza-zio proiekturako diru-laguntza | | | | | | | 7.331 | | | | | | 7.331 |
| Lehiakortasuna hobetzeko diru-laguntza | | | | | | 5.089 | | | | | | | 5.089 |
| Emakumeen elkarteentzako eta beste entitate batzuen-tzako transferentziak | | | 3.080 | 1.785 | | | | | | | | | 4.865 |
| Bilerak, hitzaldiak eta ikastaroak antolatzea | 4.050 | | | | | | | | | | | | 4.050 |
| Gazteen entitateen ekipamendua | | | 1.350 | | | | | | | | | | 1.350 |
| Bestelako gastu askotarikoak | | 266 | | | | | | | | | | | 266 |
| Guztira | 442.545 | 902.487 | 1.283.966 | 1.104.187,73 | 407.113 | 916.357 | 1.292.657 | 1.199.834 | 491.102 | 980.028 | 1.482.672 | 1.414.826 | 11.917.775 |

## 2011-2013 epea

| Kontzeptua | ANAFFE, 2011 | CEN, 2011 | UGT, 2011 | CCOO, 2011 | ANAFE, 2012 | CEN, 2012 | UGT, 2012 | CCOO, 2012 | ANAFE, 2013 | CEN, 2013 | UGT, 2013 | CCOO, 2013 | Orokorra, guztira |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin, lan arriskuen prebentzio-rako programetarako | | 239.100 | 265.000 | 275.500 | | 182.401 | 250.705 | 262.441 | | 162.693 | 275.500 | 275.500 | 2.188.840 |
| Hitzarmena CEN, UGT eta CCOOrekin, foru erkidegoko lan arriskuen prebentzioko ordezkarietarako | | 119.675 | 198.688 | 251.750 | | 90.831 | 240.916 | 239.817 | | 147.952 | 219.767 | 249.517 | 1.758.912 |
| UGT eta CCOOrekiko hitzarmenak, etorkinen laneratze eta gizar-teratzerako | | | 167.500 | 167.490 | | | 287.500 | 245.813 | | | | | 868.302 |
| Sindikatu-zentralei egindako transferentzia, ordekagarritasunaren araberakoa | | | 96.698 | 79.782 | | | 88.546 | 76.145 | | 0 | 53.958 | 46.744 | 441.871 |
| Hizkuntzen eta kulturen arteko bitartekaritza-programarako lagun-tza-kontratua | | | | | 243.013 | | | | 124.666 | | | | 367.680 |
| Istripuak kontrolatzeko batzordeko kiden diren erakundeentzako konpentsazioa | | 55.417 | 50.717 | 45.724 | | 45.305 | 51.260 | 53.249 | | | | | 301.672 |
| PFEZaren % 0,7ko funtsa Prestaziorik gabeko langabetuentzako arreta | 111.982 | | | | 67.251 | | | | 60.000 | | | | 239.233 |
| Enplegu Plana. CENekiko hitzarmena, ingurumenaren arloko hobekuntza-, dinamizazio- eta sentsibilizazio-programetarako | | 180.875 | | | | 126.146 | | | | 161.549 | | | 468.569 |
| Lan eta Immigrazio Ministerioarekiko hitzarmenetik heldutako jarduketak, etorkinak gizarteratzekoak | 275.963 | | | | | | | | | | | | 275.963 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, etorkinen laneratze eta gizarte-ratzerako EGIF | | | 120.000 | 120.000 | | | | | | | | | 240.000 |
| Diru-laguntzak bazterketa sozialaren arloan diharduten erakunde-endako | 45.170 | | | | 44.976 | | | | | | | | 90.146 |
| UGTrekin eta CCOOrekin izenpetutako hitzarmena, gazteei lanerako orientabideak emateko | | | | | | | 55.000 | 55.000 | | | | | 110.000 |
| Desgaitasuna duten pertsonen arloko entitateen funtzionamendu-rako diru-laguntzak | | | 71.250 | 37.807 | | | | | | | | | 109.057 |
| Lehentasunezko laneko arriskuei buruzko proiektuak | | | 22.000 | 17.000 | | | 15.502 | 25.987 | | | 5.093 | 8.414 | 93.996 |
| Gizarteratzeko etxebizitzen programa | 76.805 | | | | 71.958 | | | | 49.031 | | | | 197.794 |
| Gazteen elkarteen programetarako diru-laguntzak | | | 13.607 | | | | 49.213 | | | | | | 62.821 |
| Sindikatu-erakundeentzako diru-laguntzak | | | 5.521 | 10.318 | | | 4.146 | 7.946 | | | 4.159 | 7.894 | 39.984 |
| Hitzarmena UGT eta CCOOrekin, Gizarte Zerbitzuen Legea garatzeko | | | | | | | 15.069 | 23.750 | | | | | 38.819 |
| Sindikatuei ordaindutako konpentsazioa, sindikatuen hautes-kunde-prozesuaren jarraipeneko batzordeko kideak direla eta | | | | | | | 18.506 | 18.506 | | | | | 37.012 |
| Gizarte ekimeneko entitateekiko jarduketak, etorkinak intergra-tzeko | | | | | 31.500 | | | | | | | | 31.500 |
| Lan eta Immigrazio Ministerioarekiko hitzarmenetik heldutako jarduketak, etorkinak gizarteratzekoak | | | 29.052 | | | | | | | | | | 29.052 |
| Funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak | | | 2.616 | 4.878 | | | 2.119 | 3.706 | | | 2.123 | 3.699 | 19.142 |
| Emakumeen elkarteentzako eta beste entitate batzuentzako transferentziak | | | 3.000 | 12.600 | | | 2.541 | | | | | | 18.141 |
| Sindikatu-erakundeen funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntza | | | | 7.302 | | | | 5.228 | | | | | 12.530 |
| Aurrezteko eta energia-efizientziarako jarduketak | | | | | | | | 7.924 | | | | | 7.924 |
| Sindikatu-ordezkarien bidaiak eta dietak | | | 3.735 | | | | 3.154 | | | | | | 6.889 |
| Enplegu Plana. UGTrekin eta CCOOrekin eginiko hitzarmena, Gizarte Gaietako Legea garatzeko eta desgaitasuna duten pertso-nen kontratazioko | | | | | | | | 6.259 | | | | | 6.259 |
| Gutxiengo etnikoen programarako hitzarmena | | | | | | | | | 1.791 | | | | 1.791 |
| Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluaren gastuak | | | 300 | 450 | | | | | | | | 750 | 1.500 |
| Gazteen entitateen ekipamendua | | | 1.013 | | | | | | | | | | 1.013 |
| Epaiak betetzea | | | | 354 | | | | | | | | | 354 |
| Guztira | 509.920 | 595.067 | 1.050.696 | 1.030.955 | 458.699 | 444.683 | 1.084.176 | 1.031.771 | 235.488 | 472.193 | 560.600 | 592.518 | 8.066.765 |

Ikus daitekeen bezala, 2008-2010 aldiko bi kontzeptu garrantzitsuenak CEN, UGT eta CCOOrekiko arriskuen prebentziorako hitzarmenei zegozkien. Haien guztizko zenbatekoa, 4,8 milioi euro, guztizkoaren ehunek 43 egiten du.

2011-2013 aldian, kontzeptu horiek berak dira adierazgarrienak, 3,9 milioiko zenbatekoarekin. Zenbateko horrek guztizkoaren ehuneko 49 egiten du.

### V.3.4. Beste sindikatu-entitate batzuentzako funtsak

Egiaztatu dugu sindikatuentzako funts batzuk badaudela, haien ordezkagarritasunaren araberakoak eta funtzionamendu-gastuetarakoak. Funtzionamendu-gastuetan, honako kontusailak sartu ditugu:

- Sindikatu-erakundeen funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak
- Sindikatu-erakundeentzako diru-laguntzak.
- Funtzionamendu-gastuetarako diru-laguntzak.

2011-2013 aldian, honakoak izan dira ordezkagarritasunerako eta funtzionamendurako transferentziak:

| | Ordezkagarritasuna | Funtzionamendua |
|---|---|---|
| UGT | 239.201 | 20.684 |
| CCOO | 202.670 | 50.972 |
| ELA | 169.526 | 37.712 |
| LAB | 102.523 | 61.060 |
| Beste batzuk | 65.285 | 144.593 |
| Guztira | 779.205 | 315.021 |

Funts horiek jasotzen dituzten gainerako erakundeak urte batetik bestera aldatzen dira. 40 baino gehiago dira ordezkagarritasunari dagokionez, eta 15 funtzionamendu-gastuei dagokienez.

UGT eta CCOOren zenbatekoak arestian aipatutako datuetan jasota daude.

Ikus daitekeen bezala, kontzeptu horiek direla eta, lau sindikatuk ordezkagarritasunaren kopuruaren ehuneko 91 jasotzen dute eta funtzionamendu-gastuetarako kopuruaren ehuneko 54.

Atal honen laburpen orokor gisa, esan dezakegu hiru ekitaldi hauetan UGT, CCOO eta CENek zuzenean jaso dituzten funtsek ehuneko 15 egin dutela behera, eta 52 milioi euroko kopurura iritsi direla. Beherakada hori nabarmenagoa izan da CENen (ehuneko 23) UGT eta CCOO sindikatuetan baino (ehuneko 12 eta 10, hurrenez hurren).

Kontzeptuei erreparatuta, garrantzitsuena nagusiki langile landunei zuzendutako lanbide-heziketarena da, zeinak aldi honetan 23,5 milioi euro egin baitu eta ehuneko lauko igoera izan baitu aurreko hirurtekoarekin alderatuta.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria,Helio Robleda Cabezas

**ERANSKINA. NEZek ANTZEMANDAKO GORABEHERAK**

**2013an diruz lagundutako 185 ikastaroren lagina.** Nagusiki landunentzakoak dira ikastaro horiek.

| Gorabeherak | Ekintza zenbakia | Jarraipen Atalak antzemandako gorabehera | Arrazoia | Ikastaroaren egoera | Kudeaketa Atalak likidazio fasean aplikatu beharrek konponbidea |
|---|---|---|---|---|---|
| 1.“Ez jakinaraztea ikastaroa bertan behera utzi dela” | 95.1 | Jarraipeneko bisitan ez da jarduerarik topatu | Entitateak aitortzen du ez duela geroratzeari buruzko abisurik helarazi | Gorabehera antzeman da | Bisita-eguneko orduak edo talde osoa deuseztatzea |
| 2.“Gela hutsik, ikasle gutxirekin edo itxita” | 261.1 | Irakaslea eta bi ikasle baizik ez daude ikasgelan | Akatsa ikastaroaren hasiera-eguna jakinarazterakoan. Ikastaroaren lehenengo eguna deuseztatu eta birprogramatu egiten da | Balioduna | |
| | 275.1 | Bisita-egunean ez dago jarduerarik | Irakasleak gorabehera bat izan du eta ikasleei abisatu die | Gorabehera antzeman da | Bisita-eguneko orduak edo talde osoa deuseztatzea |
| | 136.1 | Irakaslea baizik ez dago ikasgelan | Irakasleak dio atsedenaldi bat programatu dela. Entitateak, zorroztasun falta dela eta, pentsatu du etorkizunean harekin ez kontatzea. | Gorabehera antzeman da | Bisita-eguneko orduak edo talde osoa deuseztatzea |
| 3.“Parte-hartzaile landun bat beste autonomia erkidego batekoa da” | 82.2 | Parte-hartzaile baten lanzentroa Bizkaikoa da. | Litekeena da ikastaroko 1. egunean Nafarroako zentro batean lanean aritzea | Gorabehera antzeman da | Ikasle horregatik ez da kobratuko. |
| 4.“Instalazioak/ ekipamenduak/bitarteko didaktikoak ez dira egokiak” | 20.1 | Manikia hautsita dago, ohea ez da artikulatua | Ikasleak dira galdetegietan gorabehera horiei buruz informatu dutenak. Ohe artikulatua ez da derrigorrezkoa | Balioduna | Gastuak aztertuko dira, "amortizazioa edo erosketa" agertzen bada ere. |
| | 246.1 | Ez dago proiekzioak egiteko materiala duen gelarik | Ikastaro osoa lantegian eman da. | Balioduna | |
| | 278 | Instalazioak, materiala eta irakasle bat gaizki baloratuak | Inkesta guztietan jaso dira gorabehera horiek. Zentroari jakinarazi zaio, halakoak hobetu ditzan. | Balioduna | |
| 5.“Orduen ehuneko 75 baino gehiago dituztenentzako ziurtagiria” | 56.1 | Parte-hartzaile bat orduen % 75 baino gutxiagotan egon da | | Gorabehera antzeman da | Ikasle horregatik ez da kobratuko. |
| | 16.2 | Parte-hartzaile bat orduen % 75 baino gutxiagotan egon da | | Gorabehera antzeman da | Ikasle horregatik ez da kobratuko. |
| | 225.1 | Parte-hartzaile bat orduen % 75 baino gutxiagotan egon da | | Gorabehera antzeman da | Ikasle horregatik ez da kobratuko. |
| 6.“Ikasleak hautatzeko irizpideak” | 225.1 | Prestakuntza-entitateko langileak ikasle gisa ageri dira | Zentro bateko langileak ez dira ikasle gisa baztertzen. | Balioduna | |
| 7.“Prestatzailearen balorazio txarra” | 121.1 | Prestatzaileak ez du betetzen harengandik espero zena | Ikasleen inkesta guztietan ohartarazten da horri buruz. | Balioduna | |
| | 278 | Prestatzaileak ez du betetzen harengandik espero zena | Ikasleen inkesta guztietan ohartarazten da horri buruz. Zentroari jakinarazi zaio, alderdi hori hobetu dezan. | Balioduna | |
| 8.“Hasierako zerrendan jakinarazitakoez beste parte-hartzaile batzuk sartzea” | 193 | Lehenengo bi egunetan zerrendan ageri ez diren bi parte-hartzaile egon dira. | Egiaztatzen da hirugarren egunetik joateari utzi ziotela. | Balioduna | |
| 9.“Parte-hartzaile batek ez du baldintza akademikoa betetzen” | 14.1 | Ikasle batek ez ditu ikastarora joateari buruzko baldintzak betetzen. | Ziurtagiria duen ikastaroa denez, baldintza batzuk bete behar dira. Geroago aurkeztu ziren ziurtagiriak. Hala eta guztiz, ere ikasleak baja eman zuen, lana aurkitu zuelako | Balioduna | |

Aurkitutako gorabehera guztiak teknikoki izapidetu dira eta zuzenketa batzuk egin dira ikastaroa emateko moduari buruz nahiz likidazio fasean. Onuradunari entzunaldia eman zaio, alegazio-fasean alegazioak aurkez ditzan, hutsak konpon ditzan edo hobekuntza-plana aipa dezan.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Lehena.- 10. orrialdean esaten da antzeko ikastaro batzuk badaudela, modu desberdinean finantzatzen direnak.

Ondoko testu zehatzagoa proposatzen da: "antzeko ikastaro batzuk badaude, moduluko kostu (ordua/ikaslea) desberdinak dituztenak".

Bigarrena.- 10. orrialdean, halaber, aipatzen da ez-betetzeak aurkitzen diren kasuetan, funtzionario ikuskatzaileek ez dutela beti amaierako erabakia ezagutzen; izan ere, erabaki hori NEZeko zuzendariak hartzen du.

Ondoko testu xeheagoa proposatzen da: "Gorabeherak aurkitzen diren kasuetan, ikastaroak ikuskatzen dituzten jarraipeneko teknikarik aipatzen dute ez dutela beti ezagutzen zein den amaierako konponbidea. Ez-betetzeak zigor ekonomiko bat dakarrenean, ekintza administratibo hori NEZeko zuzendari kudeatzailearen ebazpen batez onesten da, Prestakuntza Zerbitzuko Kudeaketa Atalak proposatuta. Gainerako kasuetan, zuzenketa- edo/eta hobekuntza-prozedura bat abiatzen da, Prestakuntza Zerbitzuko kasuko atalek instrukzioa eginda".

Hirugarrena.- 24. orrialdean aipatzen da CCOOrekiko hitzarmenean, ez zaigula nahikoa iruditzen faktura bakarra aurkeztea, kontraprestazioaren guztizko kopurua aipatuz, 600.376 euro; are gutxiago, egilea menpeko entitate bat denean.

Esan beharra dago justifikazio-formula hori aurreikusita zegoela lankidetza hitzarmenean, eta, horregatik, guztiz balioduna eta onargarria zela. Halaber, fakturan egindako jarduketa guztiak zehazten ziren, beren kostuarekin xehakatuak. Hori dela eta, honako testua proposatzen dugu: "CCOOrekiko hitzarmenean, araudian ezarritakoaren arabera eginda badago ere, ez zaigu nahikoa iruditzen faktura bakarra aurkeztea, kontraprestazioaren guztizko kopurua aipatuz, 600.376 euro; are gutxiago, faktura-egilea menpeko entitate bat denean. Faktura horrekin batera, hitzarmena betetzearen kostuei buruzko zerrenda xehakatua ematen zen, non langile-gastuak, gastu orokorrak eta ekintza bakoitzaren berariazko gastuak aipatzen ziren. 2014rako hitzarmenean, klausula bat aldatu da, zeinaren arabera ANAFE ageri baita onuradun gisa; horrenbestez, gastu guztien justifikazio ekonomikoa aurkeztu beharra dauka".

Laugarrena.- 27. orrialdean aipatzen da ezen, gorabeheraren larritasunaren arabera, Fundazio Hirukoitzaren aplikazio informatikoan zuzenean sartzen dela ala ez dela sartzen, likidazioan kontuan har dadin. . Gero, ez da jarraipen gehiagorik egiten; hori dela eta, teknikariek ez dute haren izapidea eta amaierako emaitza ezagutzen.

Zehaztu beharko litzateke teknikariek ez dakitela nola amaitzen den gorabeherarn espedientea, zeren eta haren kudeaketa eta izapidetzea beste unitate bati baitagokio. Hori dela eta, honako esaldia gehitzea proposatzen dugu: "Jarraipeneko teknikariek gorabehera jakinarazi ondoren, beste unitate organiko baten eskumena da zuzenketa, hobekuntza edo zehapena izapidetzea, aurkitutako gorabeheraren arabera.

Bosgarrena.- 30. orrialdeak (UGT, CCOO, CEN, ANAFE eta INAFREk 2008tik 2013ra jasotako funtsen taula) eta 31. orrialdeak kopuru desberdinak islatzen dituzte ANAFEk jasotako funtsei dagokienez. Taulan, ANAFEren funtsen aldearen portzentajea % +64 da; halere, 31. orrialdeko e) letran, ezartzen da ANAFEk 2008-2010 aldian baino % 1 gutxiago jaso duela.

Sindikatu- eta enpresari-erakundeek honako akatsak aurkitu dituzte jasotako kopuruetan –eta haiek berrikusteko eskatu dute–:

UGT:

Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan parte-hartzea:

2008. urtea: 0

2009. urtea: 840

2010. urtea: 652

2011. urtea: 300

CEN:

Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluan parte-hartzea:

2008. urtea: 0

2010. urtea: 0

Lan Gatazkak Ebazteko Auzitegiaren ordainketa

2008. urtea: 0

2009. urtea: 0

2010. urtea: 0

Iruñean, 2014ko abenduaren 9an: María Isabel Garcia Malo

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea:

## NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBARAK EMANDAKO ERANTZUNA

Lehenengoan, bigarrenean eta laugarrenean, ordezko testu batzuk proposatzen dira, txosteneko iruzkinak zehazten edo zabaltzen dituztenak, haien edukian eragin gabe.

Hirugarrenean, aipatu behar dugu ezen gure lana egiten ari ginen bitartean, faktura bat eskuratu dugula, non justifikazioaren guztizko kpurua eta laburpen orokorra ematen baitira; hori da iruzkinaren azalpena. Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena da justifikazio prozedura hau, araudian aurreikusita egon nahiz ez egon, 2014ko ekitaldirako aldatu egin dela.

Bosgarren alegazioari dagokionez, ageriko da behin-behineko txosteneko taulan akats bat dagoela: behin betiko txostenean zuzendu da.

Sindikatu- eta enpresari-erakundeek jasotako kopuruei dagokienez, alegazioan aipatzen diren kopuruak bat datoz, funtsean, 2008tik 2010era bitarteko datuekin; hain zuzen ere aurreko txostenetik heldu dira horiek. Datu horiek, zeinak bere garaian ez baitziren alegatu, departamentuen konfirmazioaren bitartez lortu genituen. Aurreko txostenetik heldu diren datuak direnez, eta zenbatekoari erreparatuta, ez dira taulak aldatu.

Horrenbestez, Nafarroako Kontuen Ganberak alegazioak txostenari gehitu eta txostena behin betikotzat jo da.

Iruñean, 2014ko abenduaren 12an

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

Lege Gordailua: NA – 363-1995 ISSN: 2254–1950